

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Igor Ezpeleta
Jose Angel Petralanda Gil
Iñaki Madinabeitia Elorza
Aitor Urrutia Oyanguren
Jose Luis Cantero Morcillo
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko urtarrilaren 29an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ez Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Martinez andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 29 de enero de 2013, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste la Sra. Martínez.

1.- KREDITU ALDAKETARI BURUZKO ESPEDIENTEEN GAINKO INFORMAZIOA.

1. eta 2. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko erabakien berri eman du Alkateak.

Ondoren transkribatzen da espediente bakoitza osatzen duten DIRU-SARREREN ETA GASTU PARTIDEN KONTZEPTUEN AURREKONTUAREN EGOERA-ORRIA.

- 1. ESPEDIENTEA

GASTUAK ETA KREDITU-ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA



KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarrerren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera berriak	Baliabidearen partziala
2.0201.823.000.00.01	SARRERA BERRIAK: Epe laburrerako aurrerakien itzulera: Pertsonalaren		

	aurrerakinak.	62.723,41 €	
<i>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</i>		62.723,41 €	

- 2. ESPEDIENTEA

Gastu partidak: transferitu nahi diren kredituak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
0405.212.452.20.01	Mantenimendua:kiroldegiko makinak.	21.987,45	5.800,00	16.187,45
GUZTIRA ...		21.987,45	5.800,00	16.187,45

Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
0405.625.452.20.99	Bestelako lanabesak:kiroldegia	0,00	5.800,00	5.800,00
GUZTIRA ...		0,00	5.800,00	5.800,00

* Aurrekontu-partida berriak sortu ahal izango dira

2.- 2013KO AURREKONTU BATERATUA ONARTZEA.

Alkateak egindako aurrekontu proiektuaren aldeko diktamena egin zuen Ogasuna batzorde informatzaileak 2013ko urtarrilaren 22an.

Aurrekontuak egiterakoan kontuan izandako irizpideak azaldu ditu Alkateak, eta baita aurrekontuak kapituluka dituen aurreikuspenak ere. Horrela, honako hau esan du:

Bizi dugun egoera kontuan izanik, aurrekontuak oso egokiak dira Eskoriatzarako. Lan handia izan da aurrekontuak egitea, eta horren isla da gobernu taldeak oso ondo baloratzen dituela. Uste dut azken urteetako aurrekontu zuzenena, sozialena eta herriko arazoei ondoen erantzuten diena dela. Aurrekontuak ikusita, uste dut erronkaz betetako urtea izan behar dela, helburuak eta ekintzak finkatu dira arloz arlo, eta horren ondorio dira aurrekontu hauek. Garrantzitsuenak azpimarratzearen, Atxorrotzeko gaztelua berreskuratzeko azken fasea egitea, antzokiko proiektua amaitzea eta martxan jartzea, enplegua eta herriko merkataritza sustatzea, kirol zerbitzua sendotzea, hiri hondakin solidoak biltzeko sistema aldatzeko proposamenean sakontzea, zerbitzuak hobetzen jarraitzea... Eta proiektu gehiago garatzeko prest gaude, baina, aurrekontuen garapena eta zenbakiak arautzen dituen araudiak ez digu aukerarik eman horiek aurrekontu hauetan sartzeko. Adibidez, elizateetarako inbertsioak, herrian mugikortasuna hobetzeko inbertsioak (kale nagusia asfaltatzea, autobus geltokia lekuz aldatzea...). Horregatik, nahiz eta gaur onartzea proposatzen dugun aurrekontuan ez jaso, horrek ez du esan nahi ez

direnik egingo, hitz ematen dizuet datozen hilabeteetan aurrekontuan sartuko ditugula. Proposamena egingo da, eta beharrezkoa balitz, udalbatzarretik pasako da. Baina, dena ez da hain positiboa. BEZak eta KPlak izandako igoerek eragin zuzena izan dute Udal honetako kudeaketa ekonomiko-finantziarioan, koste asko garestitu dituztelako. Bestalde, Madriletik datozen aginduek asko zaildu dute aurrekontua egitea, baina, kontuhartzaitzatik jakinarazi denez, aurrekontu proposamen honek aurrekontu egonkortasun legeak ezarritako baldintzak betetzen ditu. Madriletik eskatzen diguten gainontzeko informazioa ere prest dugu (pertsonal gastua, datozen 3 urtetarako aurrekontu aurreikuspena). Laburbilduz, eta arlo bakoitza aztertuz, esan behar da 2013rako sarrerak 5.207.000 euro izatea aurreikusten dela, 2012rako baino % 3 gehiago, eta horren arrazoi nagusia da udal zergetan Foru Aldundiak egindako aldaketek Eskoriatzako zerga bilketan izandako eragina. 2012an berankortasuna igo egingo zela uste genuen, eta ez da horrela izan, 2011koaren parekoa izan da; eta hori ikusirik eta zuhurrak izanik, baina, ez 2012rako izandakoa baino gehiago, 2011rako kopuru bera aurreikusi dugu. Bestalde, ordenantza fiskalak igotzea onartu zen, eta, era berean, Aldundiak foru fondoa % 5ean igotzea espero dugu. Esan beharra dago ere, obregatik sarrera gutxiago espero dugula. Gastuei dagokionez, iaz egin genuen analisisian diagnostikatu genuen udal honetan gastu arruntak sarrera arruntak baino handiagoak zirela. Hor, urtez urte diferentzia sortzen duen desoreka dago. Diferentzia hori geldikinarekin berdindu zen iaz, eta aurten ere horrela egitea espero dugu, baina, gutxiagorekin. Orduan, helburua gastu arrunta murriztea izan da, eta, politikari, lortzen ari gara. Gastu arrunta murrizteak arlo bakoitzeko aurrekontu proposamena hobeto doitzea ahalbidetu du, eta 2012an baino askoz diru gehiago ez badago ere, arlo bakoitzak bere helburuak lortu ahal izateko egindako ia eskaera guztiak errespetatu ahal izan ditugu. Kapituluak aztertzen baldin baditugu, argi ikusten da II kapituluak aurrekontuaren erdia hartzen duela ia: % 49, ezinbesteko kapituluak da udal zerbitzuak kudeatu ahal izateko; gero, I kapituluak aurrekontuaren % 25a hartzen du, beste erakunde batzuei egiten dizkiegun ekarpenek eta udalak emandako laguntzak % 15a dira gutxi gorabehera, eta maileguen amortizazioa, % 5a. Zorpetze tasa jaitsi egin da interes tipoak jaitsi egin direlako maileguak egin genituenetik, eta kuota finkoa ordaintzen dugunez, amortizatutako kopurua askoz handiagoa izan da. Denbora gutxian, 2.600.000 euroko zorra izatetik 1.700.000 euroko zorra izatera igaro gara. Eta, azkenik, aurrekontu honetan 2013rako hasiera batean aurreikusten ditugun inbertsioak aurrekontuaren % 4,5a dira, nahiz eta ziurtasun osoz aurreratu dezakegun kapitulu hau nabarmen igoko dela urtean zehar. Arloz arlo, honako hauek azpimarratu gura ditugu: pertsonal arloan gastua murriztu egin da Madriletik ezarritako neurriengatik (Elkarkidetzari egin beharreko ekarpenak % 10era arte murriztea, ordainsariak izoztea, ez da ordezkapenik aurreikusten, aurreikusten den kontratazio bakarra bi peoiena da, eta berori, lana sustatzeko); Hirigintzako eta Obrak eta Zerbitzuetako aurrekontua ia zkoa baino handiagoa izango da, mantentze-lan, konponketa eta inbertsio gehiago egongo delako; Gizarte Zerbitzuetako aurrekontua 23.000 eurotan igo da, diru laguntza partidaren batek diru gehiago duelako eta partida berri bi sortzea proposatzen delako: bata, kaleratzei aurre egiteko; eta, bestea, GKEi laguntzeko; Administrazio Orokorrean 15.000 euroko murrizketa egongo da; Euskara arloak 10.000 euro gehiago izango ditu ekintzetarako; Elizateek ere zertxobait gehiago izango dute; eta Kulturaren igo egin dira ere aurreikuspenak antzokiko obregatik eta ekintza gehiago egiteko, nahiz eta jaietako partida jaitsi egin den; Hezkuntzan ere igoera izan da Luis Ezeizan egin beharreko inbertsioengatik eta haurtzaindegia zerbitzuko gastuak igo egin direlako (azken kasu horretan, Eusko Jaurlaritzatik datozen sarrerak ere kopuru berean igo dira); Gazteria arloan ere igoera izan da; Kiroletako aurrekontua 2012koa baino handiagoa izango da (jarduera gehiago, kirol aholkularitza zerbitzua); Ingurumenak bere partida propioa izango du, Museoko partidatik berezita, eta konpostaje mekanismo gehiago jartzea eta prebentzio eta kontzientziazio neurriekin jarraitzea aurreikusten da; Turismo eta Ondarean murriztu egin da aurrekontua zati bat Ingurumenera pasa delako; Enplegu arloak partida berri bat izango du herriko merkataritza sustatzeko; Parte hartzerako diru kopurua jaitsi egiten da, eta Komunikaziokoa igo, barne komunikazioa zein kanpokoarekikoa hobetzeko; eta, azkenik, eta etorkizunari begira, datozen 3 urtetarako aurreikuspena egin da. Esan behar da gure egoera nahiko jasangarria dela 2015era arte, saldutako lurretatik etorriko den diruarengatik. Baina, 2015etik aurrera egoera oso desberdina izango da, gastu eta sarrera arruntan arteko desorekak jarraitzen badu, ez da egongo dirurik inbertsioetarako, ia sarrera guztiak gastu arrunta finantzatzeko erabili behar izango dira.

Esan beharra dago ere, aurreikuspen hori egoera ekonomiko zehatz baterako eginda dagoela, eta hori aldatu daitekeela, txarrera edo hobera egin dezakeen aurreikuspena da.

Berlaratutako guztiak jakinaren gainean geldituta, ondorengoek hitz egin dute:

* Merino jauna: Esan duzu aurrekontu hauek, garai hauetarako, oso sozialak direla eta horrelakoak. Guk guztiz kontrakoa ikusten dugu, sozialetik oso gutxi dute, alderdikoitik, asko. Zeren eta enplegua sustatzeko partidak, gutxi edo bat ere ez, bi liberatuen partida ez bada enplegua sustatzeko. Langabetuentzat ez dut inolako partidarik ikusten nik. GLLei dagokionez, badakigu aurreko Eusko Jaurlaritzak esan zuela ez zituela murriztuko, noski! Kopuruari dagokionez ez, baina, bai denboran. Lehen 12 hilabeterako zena, orain 6 hilabetera murriztu da. Udal batzuk ari dira GLL horiek indartzen, izan ere, jendeak benetan behar ditu eta lehen 6 hilabeterako zenarekin orain 12 hilabete egin behar ditu. GKEi buruz, garapenerako laguntzak aipatu dituzu, ez dira % 0,02ra ere iritsiko. Inbertsioei dagokienez, antzokia lehenesten ari da, 240.000 eurotatik 214.000 antzokira joango dira zuzenean; gainontzeko inbertsioak esaten duzu B aurrekontuan joango direla gerakina iritsitakoan, ikusi beharko da. Nire ustez, norbait jantzi behar denean, lehenengo prakak eta txaketa erosi behar dira, eta gero eskularruak eta bufanda, osagarriak... Uste dugu astakeria bat dela antzokiarekin egiten ari zaretena, erabiltzen ari zareten helburuarekin –helburu erabat alderdikoia- zerikusirik ez duen helburu desberdin baterako, 2003-2007ko udalbatzarrari esker, lortu ziren 1.200.000 euro gastatzea. Uste dugu inbertsioetan lehentasuna eman behar zitzaioela San Pedro auzoari, Olazarko horma egonkortzeari, eta batez ere, herriko eskolan pentsatzea, udal eraikina baita. Proiektu horretarako aurreikusita dago inbertsio bat, baina, azkenean horretarako 3.000 euro izango dira. Kulturako eta Elizateetako aurrekontuek igo egin direla ere aipatu duzu. Lehen ere esan dut osagarriak ez direla lehendabizi jarri beharrekoak. Arloz arlo ere hitz egin duzu, baina, Udal honetan elkarbizitzarako, taldeen arteko elkar ulertzeko gune bat falta da. Hemen, duela hilabete, proposamen bat egin genuen bozeramale kontseilu antzeko bat sortzeko herriko gai garrantzitsuez hitz egiteko, eta aurrekontu proiektua horietako bat da. Inork ez digu deitu esateko aizue! Planteatzeko zerbait dugu. Esandakoak esanda, amaitzeko esango dut aurrekontuen kontra bozkatuko dudala.

* Alkate jauna: Esan duzunarekin guztiz kontra nago. Eta azkenengo esan duzunarekin hasiko naiz “taldeentzako elkarbizitzarako gune bat falta da”. Guk honakoa esan genuen: bozeramale junta antzerako bat egingo dugu iritzirik kontrastatzeko? Eta deialdia egin genuen. Eta, zein izan zen emaitza? Ez zineten etorri eta ez duzue eskatu berriz egiterik ere. Horren aurrean, zer nahi duzu nik esatea? Bigarrena, aurrekontuena junta horretan ezta-baidatzeko gaia dela esan duzu. Gogorarazten dizuet aurrekontu proiektua batzordea baino astebete lehenago eman zitzaizuela. Horrekin batera bidali zitzaizuen mezuan esaten zitzaizuen aurrez ematen zitzaizuela denbora izateko proposamena aztertzeko eta batzordean egoki irizitako ekarpenak egiteko. Emaitza, oposizioko 3 zinegotzitik bakarra etorri zen, eta 0 ekarpen. Nik, sentitzen dut, baina, honek guztionek bere martxa du, eta ezin da zuen zain egon. Pena handia ematen dit esatea aurrekontu hauek ez direla sozialak. Uste dut 2013ra begira ahalegin handia egin dugula, gizarte zerbitzuetako partidek lehenatasuna izan dutela; aurrekontu honetan arlotik bertatik proposatutako hainbat jarduera eta laguntza daude, eta hau esaten duzu: aurrekontu horrekin ez da ezer egiten enplegurako, GKEentzat hori ez da ezer. 0 euro baino hobe dira 2.000 euro. Gure aurrekontuek ez dute gehiagorako ematen. Enpleguari dagokionez, mankomunitatearekin batera aritzeko partida bat irekitzea lortu dugu, arlo horretan berea baita ekimena. Eta GKEei dagokienez, aurtan, ahalegina eginda, partida bat kontsignatzea lortu dugu, nahiz eta txikia izan. Espero dezagun datozen urtetarako handitzen joatea. Inbertsioei dagokienez, komentatu zen Ogasuna batzordean, eta badirudi ez zenuela ulertu. Esaten duzu 2003-2007 agintaldian lortutako dirua beste helburu baterako zela; nik ez dut ezagutzen. Dakidana da diru hori lurraren aprobe-txamenduetatik datorrela, eta Lurzoruaren legeak helburu zehatz batzuetarako erabiltzen lagatzen duela bakarrik: ondare historikoa zaharberritzeko, sustapen publikoko etxebizitzak egiteko lurrak erosteko edo ekipamendu komunitarioak hobetzeko; eta helburu horiekin bat datoz antzokiko eta Atxorrotzeko jarduerak, baina, ez San Pedrokoak eta Olazarrekoak. Herritarren parte hartze prozesu bat egin da, eta proposatutako inbertsioetatik ezin izan dira

aurreikusi bozkatuenetako bi. Dirurik ez dagoelako ezingo bada ere San Pedro edo Olazarreko inbertsio guztia egin, badago oraingo egoera hobetzeko zenbait esku hartze partzial egiteko asmoa. Eta sentitzen dut, uste dut egiten dituzun kritikak merkeak direla, agintaldi honetan onartzen dugun hirugarren aurrekontua da, eta oraindik ez dugu jaso proposamen serio bakar bat.

* Cantero jauna: lehendabizi, uste dugu defizit bat dagoela inbertsioei dagokienez, eta etorkizunean izan daitezkeen inbertsioetaz hitz egin diguzue. Guk mahai gainean aurrekontu proiektu bat dugu, eta hori da bozkatu behar dena, eta etorkizunean zer egingo dugun inbertsio horiekin? Hobe etortzen badira, emango dugu orduan gure iritzia. Inbertsioei dagokienez, Juan Luisek laburtu du zertan oinarritzen diren. Herriak oso ondo baloratu duen inbertsioa, baita Eskohitza proiektu horretan ere, errepidea konpontzea da, eta ez dakit udalbaitza honek inoiz planteatuko duen konponketa hori... zerbait gertatu arte. Ez gaude ados, adibidez, Udalbiltzari egiten zaion ekarpenarekin eta ez egotea EUDEL bezalako erakunde batean. Era berean, partida sozialari buruz, uste dut udal gobernu taldearen aldetik harrera hobeia izan beharko lukeen gai bat kaleratzeena dela. Uste dut aurreikusitako diru kopurua ez dela nahikoa. Badirudi Eskoriatzan 3 kasu ditugula, eta krisia areagotuz baldin badao, gehiago izango dira. Eta uste dut gai honekiko begirune handiagoa izan beharko genukeela. Gai honetan garrantzitsuena borondatea izatea da, udal gobernu taldeak aurrez jarrera ona izatea, eta horrela bada, gure botoa, aurkakoa izango dena, etorkizunean aldatu daiteke. Enplegu politikako inbertsioei dagokienez, bada, iazkoak modukoak dira, bat ere ez, edo ia bat ere ez. Aurrekontu honetan Atez Ateko bilketa sistema ere aurreikusten da. Gu ez gaude ados sistema horrekin eta, beraz, partida hori ez dugu onargarritzat jotzen, gu 5. edukiontzia alde baigau. Eta kontu guzti horientatik, guk aurka bozkatu behar dugu. Eta aurkako gure botu hori ez dugu nahi kritika huts bezala hartzerik nahi, ez dadila suntsigarritzat jo, baizik eta hortik kaleratzeen gaia, enpleguaren gaia eta abar atera daitezela. Inbertsioei dagokienez, mahai gainean jarritakoan joango gara horietaz gure iritzia ematen.

* Alkate jauna: kritika merkea esan dudanean esan nahi nuen nahiago ditudala kritika onargarriak. Batzuetan, min egiten duten adierazpen hutsalak edo inora ez doazen kritikak egiten dira, eta guztiz kontrakoa nahiko nuke. Beti esan dugu hemen oso gustura hartuko genituzkeela ekarpenak, baina, noski, zentzuz egiten direnean. Asfaltatzearenak lehentasuna du guretzat, eta ez bakarrik asfaltatzeak, baita hodia aldatzea, autobus geltokia aldatzea eta plaza ingurua oinezkoentzako jartzea ere, denak proiektu bakarrean joango direnak. Eta proiektu hori egitea aurrekontuan sartuta dago, hori baita eman beharreko lehen urratsa inbertsio hori egiteko. Baina, Lurzoruaren legeak ez digu uzten inbertsio hori Santa Mariñeko lurren aprobeixamenduetatik finantzatzen. Diru horiek derrigorrez ondare historiko-kulturala berreskuratzeko, lurak erosteko edo udal ekipamendu komunitarioak hobetzeko erabili behar ditugu. Eskohitza parte hartze prozesuan boto gehien jaso dituzten inbertsioetatik Lurzoruaren legea betetzen zuten bakarrak antzokia, gaztelekua eta Luiz Ezeizako inbertsio bat ziren; baina, beste guztia, nahi edo ez, antzokirako izan behar zen. Baina, horrek ez du esan nahi 2012ko aurrekontuaren kitapena amaitutakoan gelditzen den dirua inbertsio horietarako erabiliko ez denik. Eta ziurtatzen dizuet etorriko direla, guretzat lehentasuna dutelako. Eta gure borondatea erakusteko lehen urratsa da aurrekontuan sartu dugula proiektua egitea. Kaleratzeei dagokienez, esan duzun bezala, hitzarmen zirriborro bat dago, eta sartu dugun partida ez dakit asko edo gutxi izango den, baina, KALERATZEAK STOP plataformatik udal guztiei egin zitzaizen proposamena izan zen biztanleko 0,2 eurokoari dagokion partida kontuan hartzea; Eskoriatzaren kasuan 800 € lirateke, eta guk, borobiltzearen, 1.000 € aurreikusi ditugu. Gutxi dela... ikusiko dugu, baina bai eskatutakoa baino gehiago dela. Oraindik ez dakigu zenbateko gastua jasatea tokatuko zaigun. Enplegu politikari dagokionez, askotan esan dut mankomunitatetik kudeatzen ari direla, aurreko agintaldian Eusko Jaurlaritzak, PSE zegoenean, Eskualde Garapen Agentziak indartzea aukeratu zuelako udalei hondarrak eman beharrean. Garapen jasagarri batzorde batean eman zen horren berri, baina, labor erreplikatuko dut: 2012an diagnostiko bat egin zen, gero plan bat egin zen 15 eragileen laguntzarekin, jarduera proposamen bat egin zen, Eusko Jaurlaritzan aurkeztu zena, eta proposatutako jarduera batzuk onartu egin dira eta lehenbailehen jarriko dira martxan. Lehenengo neurria martxotik aurrera 2 peoi kontratatzea izango da. Lehen, laguntzak udalei ematen zitzaizkien, baina, orain garapen ekonomiko-

rako elkarteen bidez koordinatzen dira. Eta, Eskoriatzak, eskualdeko plan horren barruan, bi peoi kontratatuko ditu. Eta eskualdeko jarduera horretaz gain, Eskoriatzako Udalak zerbait gehiago egiteko interesa du. Uste dugu herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa garelara, eta uste dut gazteak eta ez hain gazteak animatu behar ditugula negoziarioak martxan jartzera, eta jarduera batzuk martxan jartzeko 2.000 euroko partida aurreikusi dugu. Eta, amaitzeko, inbertsioetarako kopuruari dagokionez, noski nahiko genukeela handiagoa izatea, zerranda oso luzea dugu, parte hartze prozesuan proposatutako inbertsioak ez ezik, beste batzuk ere jasotzen dituen. Dakizuen bezala, aurrekontu bat egiterakoan gastuen zenbatekoa sarrerekin berdindu behar da, eta badira zenbait gastu derrigorrez aurreikusi beharrekoak, adibidez, argindarrarena, eta horrek eragiten du inbertsioetarako kopurua gelditzen dena izatea. Baina, gogorarazi nahi dizuet joan zen urtean, hasierako aurrekontuan, ez zegoela inolako inbertsiorik jasota. Aurten, hasierako aurrekontuan, 200.000 € jaso ditugu inbertsioetarako, eta alde ederra da aurrekontu batetik bestera.

* Urrutia jauna: guk ere aurka bozkatu behar dugu, eta horretarako ditugun arrazoiak azalduko ditut. Lehendabizi, ikusten dugu aurrekontua egiterakoan gauzak ez direla aldatu iaiztik, eta iaiz aurka bozkatu genuen, eta aurten ere, koherentziaz, aurka bozkatu behar dugu. Aurrekontu hau gezurrezkoa delako, eta espero dut inor ez mintzea gezurrezko aurrekontua dela esanda, eta ez hartzea zerbait suntsigarri bezala. Benetako aurrekontua kitapena egindakoan eta urtean zehar egiten diren aldaketak egin ahala izango dugu. Dokumentu hau erreferentzia bat izan daiteke, suposizio bat, baina, ez aurrekontu bat. Eta, gainera, honako hau esaten da: 3 urteko programa egin dugu; bada, dena horrela egiten baldin bada, arreglatuta gaude! 3 urterako aurreikuspena egiten da, eta esaten da jasagarria dela, baina, sinesgarria da? Zeren eta bakarrik urte amaieran baldin badakigu zein den benetako aurrekontua, jasagarria izango da, baina, zein neurritan da sinesgarria? Aurrekontuaren egitura ikusten baldin badugu, gastuetan, 1 kapituluan, % 6ko jaitsiera dago, baina, jaitsiera hori Madriletik ezarritako neurriengatik Elkarkidetzari ordaindu ez zaion kopuruari dagokio. Eta, gero, liberatuen lanaldiak daude, iaiz % 24ko igoera izan zutenak. 2 eta 4 kapituluei dagokienez, adibidez, ikusten dugu elizateetako errepideentzako 23.000 €-ko partida bat dagoela, oso ondo, baina, bide horiek publikoak izatea espero dut, ez? Hemen, osoko bilkura batean, garbi gelditu zelako bide horiek ez direla publikoak, eta Udalak bide publikoetan inbertitzea espero dut. Ez dut esaten 23.000 € horiek ez direnik inbertitu behar auzoetan, areago, beharbada diru gehiago inbertitu behar da, baina, uste dut kontzeptu hori zehatzago aztertu beharko litzatekeela. Kontrastean, ondoan, bide publikoari buruzko beste partida bat dago, % 25ean murrizten dena, baina, ez dakit ze kontzeptutan, eta areago, kontuan izanik parte hartze prozesuan lehentasunezko jardueratzat kale nagusia asfaltatzea atera zela. Egia da enplegua eta herriko merkataritza sustatzeko 2.000 €-ko partida aurreikusten dela bakoitzarentzat, eta zoriontzekoa da partida bat aurreikustea, nik urtero eskatu izan dudana delako, baina, bakoitzari 2.000 € izendatzea gutxi iruditzen zaigu. Guk horretan 1 kapituluan Elkarkidetzakoarengatik kendutakoa jarriko genuke, kendutako hori helburu horietarako erabiltzea. 1 kapitulua ikusten baldin badugu, iaizko hasierako aurrekontuaren eta aurtengoaren arteko aldea 90.000 €-koa da, baina, benetakoa, 40.000 €-koa da. Orduan, horrela egitea proposatzen dugu eta ez bakarrik partida bat irekitzera mugatzea, baizik eta partida horri behar besteko edukia ematea. Ez naiz sartuko Atez Atekoan, gai zerrendako beste puntu batean aztertuko delako eta sakonduko dugu bertan. Nik uste dut aurrekontu hauei arkatza sartu behar zaiela. Eta, horren adibide izan daitezke Aitzorrotz Kultur Elkartearentzat aurreikusitako 7.000 € Errekan Gora antolatzeke. Eta baten batek pentsatuko du Aitzorrotz Kultur Elkarte delako esaten dudala, eta ez da horrela, niri berdin zati Aitzorrotz Kultur Elkarte izatea edo Kurtzebarri Kultur Elkarte izatea. Ni Udal honetan sartu nintzenean, lehenengo urtean egin zen Errekan Gora, eta, orduan, 40.000 € izan ziren, eta nik horren alde egin nuen, ekimen polita eta positiboa iruditzen zitzaidalako herriarentzako. Baina, orain, dugun egoera ikusita, uste dut arkatza zorrotzago izan behar dugula horrelako jardueretarako. Eta, zergatik esaten dudana gezurrezko aurrekontua dela? Esan dudana gain, 2 edo 3 partidek atentzio ematen dutelako aurrekontuan ez daudelako; bata, Goienarena da. Udal honek konpromiso bat du Goienarekin eta ez da agertzen, eta kontua da iaiz ere ez zela agertzen, eta urte amaieran, kreditu aldaketa bidez, 30.000 edo 35.000 € eman zitzaizkiela. Gero, elizateetan egin beharreko inbertsioak daude. Iaiz ere ez zen ezer jarri, eta azkenean 70.000 € xedatu ziren. Uste dut ez legokeela gaizki orain sartzea horretarako partida bat. Udalak hartutako

konpromisoei aurre egiteko partida garrantzitsurik ez aurreikusteak uste dut garbi uzten duela aurrekontu hau gezurrezkoa dela. 2 eta 4 kapituluak % 9 igotzen dira. 6 kapituluko zati nagusia antzokirako da. Non gelditzen da parte hartze prozesua? Eta inbertsioei buruzko lehentasunak? Horri dagokionez, egunkarietatik jakin nuenean parte hartze prozesuan eskatutako lehen inbertsioa kale nagusia konpontzea izan zela, sentsazio gazi-goza izan nuen, oraindik ez direlako hilabete asko, 3 edo 4, ez gehiago, galde-eskaeretan konponketa hori eskatu nuela eta jasotako erantzuna izan zen hori diru asko zela eta auzolanean ez bazen... ez zegoela egiteko modurik, 90.000 euro baino gehiago izan zitezkeela. Orain, parte hartze prozesuan esan da, eta, orain, badirudi urtearen erdi ingururako hasiko dela egiten. Eta nik uste dut Juan Luisek aipatu dituen elkarbizitzarako guneekin hasi behariko ginatkeela, zeren eta, hemen, osoko bilkuran, behin baino gehiagotan salatu dugu oposizioko zinegotziak gutxietsita gaudela, GUTXIETSITA! Eta horren aurrean, eman zaigun erantzun bakarra izan da Alkatetzako ateak irekita daudela. Bai, baina, uste dut ateak irekita egongo direla gu sartzeko, baina, baita Alkatea irteteko ere. Ziur nik hori proposatu nuenean inork ez zuela pentsatu kritika onuragarria zenik, baizik eta suntsigarria, ziur! Izan ere, udalbatzarrean batzordeetara ez garaia joaten askotan entzun ondoren, hona ikuskizuna ematera etortzen garaia entzun dugu. Hori udalbatzar honetan esan da. Lehen, proposatu nuenean, ez zegoen dirurik; eta, orain, parte hartze prozesuan esan denez, guztiari amen esan zaio. Eta, kasualitatea, oker ez banago uste dut antzokirako inbertsioa 3. eta 7. leku artean gelditu dela parte hartze prozesuan. Azken 5 edo 6 urteetan lehentasunezkoa eta bakarra den inbertsioa ezker abertzalearentzat. Diru sarrerei dagokienez, kontua herritarrak estutzea eta estutzea da, zertarako? Erakundeetatik datorren dirua neurri batean mantentzen delako; foru fondoak, nahiz eta pixka bat murriztu, hor dirau. Kanpotik datorren diru asko finalista denez, nola lortzen da hori? Herritarra estutuz, eta, nola estutzen zaio? Zaborren aurrekontua %6,14 igo da, ura % 15,60, isunak % 27, estolderia zerbitzua % 13,32, ibilgailuen zerga % 7, jarduera ekonomikoak % 10, hiri OHZa % 5...; horren guztiaren ondorioa da 2012an egin zen moduan, hasiera batean 5.000.000 onartu zirela eta 6.200.000 exekutatu zirela; orain, hasiera batean 5.200.000 onartzen dira eta ikusiko dugu amaieran. Eta hori paper buztia ematea bezalakoa da. Amaitzeko, esango dut politena zure hasiera iruditu zaidala, Beñat: "aspaldiko aurrekontu sozialenak eta ekitatiboena dira". Zer gaizki utzi dituzun aurreko 5 edo 6 aurrekontuak, hauek badira sozialenak eta ekitatiboena!

** Alkate jauna: azkenetik hasiko naiz. Kontua ez da gauzak gaizki egin direnik. Kontua da azken 5 edo 6 urteetan partida sozialak sartu ahal izan diren aurrekontu bakarrak direla. Lehen esan dut aurrekontuan sarrerak ere badirela eta gastuetan aplikatu beharko direla, eta aurten, horrela nahi izan dugulako, partida batzuk gastu sozialetarako erabiltzeko zortea daukagu. Eta benetan uste dut aurrekontu sozialenak eta berdintzaileenak direla, eta esan dudan azkena apuntatzea ahaztu zaizu, herritarren arazoei hobekien erantzuten diotenak. Esan duzu gezurrezko aurrekontuak direla. Ez dira aurrekontu osoak, eta iaz ere esan nuen eta berriz esango dut. Hazienda batzordera etorri izan bazina, entzungo zenuen egun horretan Juan Luisi erantzun niona partida horiek zeintzuk ziren galdetu ondoren. Nik honakoa esan nion: Goienari hainbeste, beste honi beste hainbeste... hemen inork ez du inongo kopururik ezkutatzeko asmorik. Eta etorri bazina entzungo zenuke zer, zenbat eta zertarako izendatu gura den. Baina, betiko ohiturarekin jarraitzen dugunez... eta bakoitzak nahi duen bezala har dezala. Bihar bertan nahi baduzu ezagutu dezakezu aurrekontu orokorra. Zergatik ekartzen ditugu zuk gezurrezko deitzen dituzun aurrekontu hauek? Ezin dugulako orokorra ekarri, ezin dugu onartu. Nola onartuko ditugu diru sarrerak baino gastu handiagoak dituzten aurrekontuak? Aurrekontu proposamen batean ezin da gehitu kitapen bateko behin-behineko emaitza. Eusko Jaurjaritzan saiatu dira aurrekontua baino lehen kitapena izaten, izan ere, logikoena da lehenengo aurrekontua egitea, martxoan kitapena, eta gero ikustea zer egin horrekin. Pozten nauen gauza bakarra da lehenengo aldia dela proposamen serio bat ikusten dudala, 1 kapituluari buruz egin duzuna. Alde edo kontra egon naiteke, baina, gutxienez, proposamen bat da. Eta lehen esaten nuen hori kritika onuragarria dela eta ez suntsigarria. Dena den, ez nator guztiz bat esaten duzunarekin. Jaitsiera hori udal honetako langileen eskubideen aurka egin da, Elkarkidetzari ordaintzen ez zaion diru hori uste dut ez dela beste ezertarako erabili behar, diru hori langileena da, eta langileei kentzea beste zerbailetarako erabiltzeko, ez dakit, ba, oso bidezkoa iruditzen zaidan. Dena dela, prest nago aztertzeko eta ikusteko. Inbertsioei dagokienez, horri buruz ere*

dexente hitz egin duzu, eta hirugarren aldia da esaten dudana: Lurzoruaren Legea egongo ez balitz... baina, kontuan izanik ezin dugula sartu gura dugun guztia aurrekontuak mugatuak direlako, indarrean dagoen araudiak uzten digunetik ahal izan duguna sartu dugu. Horregatik sartu da antzokiarena eta ez elizateetan egin beharreko inbertsioak, ez dela egongo? Ba, noski egongo dela! Eta iaz ere gauza bera gertatu zen, daukagun aurrekontua daukagu, eta gerakinaren arabera gauza baterako edo besterako erabiliko dugu. Pozten nau zuk komentatzea enplegua eta herriko merkataritza sustatzeko partida bat ireki dugula, eta edukiz betetzea eskatzen duzu. Noski edukia izango dutela! Garapen batzordera etorri eta eduki horri buruzko proposamenak egitera gonbidatzen zaitut. Berriz diozu bozeramaleen espazioak sortu behar direla, sentitzen dut, baina, uste dut ez dela osoko bilkurarik egon ez denik esan batzordeetara etortzeko, eta ez modu txarrean. Bozeramaleen junta sortu zen, ez zen inolako eragozpenik izan, deialdia egin nuen, hor gelditu zen... eta lka-teak Alkatetzatik irten behar duela... ba, alkatea askotan irteten da Alkatetzatik, gertatzen dena da Alkatetzako atea irekitzen duenean ez duela oposizioko inor aurkitzen beste aldean. Gutxietsiak diozu, eta hemen arrabola edo antzeko hitzak erabili dituzue. Arrabola zuek sortu duzen zerbait da, hemen eta batzordeetan beti entzun izan zaituztegunako, zuetako batzuk, batez ere hasieran, kontuan hartzen ziren ekarpenak egiten zenituztenean, eta onartzen zirenak kontuan hartzen ziren. Baina, noski, ez badira gauzak landuta ekartzen eta bakarrik osoko bilkurara ekartzen badira dena erabakita eta garatuta dagoenean udal langileek eta zinegotziek ordu asko sartu ondoren; hemen hastea irakurketa orokor bat egiteko garaian... ba, sentitzen dut, uste dut lana aurretik egin behar dela, eta gutxietsiak sentitzen baldin bazarete, sentitzen dut, baina, arazoa zuena da, zuek aldatu beharko duzue jarrera; gu hemen gaude, lan pila bat egiten dugu. Eta berriz esaten dizuet, eta ez hartu kritika bezala, etortzen bazarete, gu lanerako prest gaude. Aurrekontuei dagokienez, esan duzu partida batzuk arkatza sartzeko modukoak direla. Bai, egongo dira, baina, Ogasuna batzordera etorri eta esan hau kenduko zenutela edo beste hori jarri... Urte eta erdi daramatzat, eta oraindik ez dut horrelako proposamenik ikusi. Beti esaten duzue alegatu egin behar duzuela, kontra bozkatu behar duzuela alegazioak aurkeztu ahal izateko... Baina, ez da inoiz horrelakorik izan, gaur da lehenengo aldia zerbait serioa entzuten dudala. Esan duzu 2 edo 3 partida falta direla, eta horien artean, Goienarena; bada, bai, lehen esan dudana bezala, gastuen partidak sarrerakoekin bat etorri behar direlako; eta kontuan izanik Goienakoa urte amaieran ordaintzen den partida bat dela, eta horrela izango dela aurten ere, badiera premia handiagoko partidak aurrekontuan sartzeko, eta Goienakoa aurreko urteko aurrekontua kitatu arte uzten da. Nola ordaintzen da? Bada, urtero bezala, urtero Goienarekin sinatzen den hitzarmenaren arabera; bertan, azken urteetan aldatu ez diren irizpideak finkatzen dira. Asfaltuari dagokionez, Udalean sartu ginenetik badakigu asfaltatze behar hori zegoela. Iazko aurrekontuak oso murrizak izan ziren inbertsioei dagokienez, eta ez genuen lortu finantzaziorik asfaltatze lan horietarako, baina, buruan genuen. Eta, aurten, inbertsioetarako diru pixka bat dugunez, aurten egingo da; eta, ez bakarrik asfaltatua, baita hodia konpontzea, autobus geltokia lekuz aldatzea eta plaza ingurua oinezkoentzat jartzea ere. Eta berriz esango dut, Lurzoruaren legeak derrigortu egiten gaitu hirigintza aprobetxamenduetatik datorren dirua 3 gauza zehatzetarako erabiltzera. Guk buruan geneukana eta herritarrek eskatutakoa ikusirik, alternatiba bakarra antzokia zen, gezurrezko aurrekontu honetan sartu zitekeen inbertsio bakarra zen, hobe esanda, orokorra ez den aurrekontu honetan. Eta, berriz esango dut, horrek ez du esan nahi egingo den inbertsio bakarra antzokia izango denik eta kitto. Amaitzeko diru sarrerak aztertu dituzu, eta esan duzu gure helburu bakarria herritarrak estutzea dela. Bada, ez da horrela, badakigu herritarrak momentu txarra pasatzen ari direla, eta horri erantzuteko daude hobariak eta salbuespenak. Eta horrekin politika fiskal askoz ere aurreratuago bat lortzen dugu. Guk benetan sinesten duguna da gehien daukanak ekarpen handiagoa egin behar diola gastu publikoaren finantzaziorari. Orain, badirudi, urte asko pasa ondoren, EAJ jarreraz aldatzen ari dela eta politika fiskala aldatzea planteatzen hasi dela. Amaitzeko, esango dut ez direla dantzan hasteko moduko aurrekontuak, baina, lan handia egin dugula aurrekontu horiek prestatzeko: herriarekin egon, herriari entzun zer nahi duen, zer aukera ditugun ikusi; eta ahaztu gabe horrek guztiorrek arlo bakoitzak bere helburuak eta helburu horiek lortzeko jarduerak finkatzen dituzten kudeaketa planak dituela atzetik, eta aurrekontuak horren guztiorren isla direla. Hori da dena.

* Merino jauna: kritika merkeak direla egindako komentarioak direla-eta, aurrekoan planteatu zen organo aholku-emaileari dagokionez esan behar dizut inizatiba alkatearena izan behar dela, bera baita eskoriatzar guztion alkatea, ez bakarrik zati batena, orduan, inizatiba berak izan behar du. Santa Mariñeko aprobetxamenduei buruz (1.200.000 eurokoa) egon den prozesuari dagokionez, uste dut nahikoa denbora izan duzula ondo informatzeko eta jakiteko bere garaian mozio bat izan zela udal honetan eta bertan jaso zela 1.200.000 euro horiek bakarrik etxebizitza sozialak egiteko lurrak erosteko erabiliko zirela. Bilduk, gehiengo absolutoz azkenengo agintaldian, mozio hori baliogabe utzi zuen dirua antzokirako erabiltzeko. Jakin dezazun esaten dizut.

* Alkate jauna: inizatiba hartzeko eskatzen didazue, baina, ez badut erantzunik ikusten, ez badut zuen aldetik inolako asmorik ikusten, bada, gu ez gara horretan tematuko. Gu lanean ari gara eta lanean jarraituko dugu. Interesa duzuela, bada, esan; baina, ez badut inolako interesik ikusten zuen aldetik, bada, aurrera jarraituko dut, arrabolarekin edo gabe. Santa Mariñeko aprobetxamenduen erabilera aldatzeko aurreko agintaldian onartutako aldatetari buruz esandakoa, hasiera batean babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lurra erosteko zena, bada, esango dut asko pozten naizela aurreko agintaldian egindako aldatetaz. Urteek erakutsi digute etxegintza puztuta zegoela, eta horren adibide garbia da Santa Mariñeko etxebizitza tasatuak: 32tik 16 saldu ezinda baitaude. Ez dut ezagutzen komentatu duzun mozioaren testua, baina, ezagutzen dut aprobetxamenduei buruzko aurreko agintaldiko gobernu taldearen proposamena, eta horren arabera, proposamen hori betetzen ari gara. Eta ez daukat inolako eragozpenik hemen eta orain esateko zertarako diren aprobetxamendu horiek: 150.000 bat euro elizateetarako, 300.000 euro San Pedroko bigarren faserako eta 700.000 euro antzokirako. Ados edo aurka egon gaitezke, baina orain arte kontzeptu horrengatik etorri diren diruak aurreko agintaldian egiten hasi ziren inbertsioak amaitzeko erabili ditugu. Eta, orain, gure proiektuak ateratzen hasi gara, ez aurreko agintaldikoak, bada, goelako diru apur bat inbertsioetarako.

* Urrutia jauna: pozten naiz zuk sinestea aurrekontu sozialenak, ekitatiboenak eta herritarren beharrei ondoen erantzuten diotenak direla; izan ere, aurrekontu onenak ez izateaz gain, gezurrezkoak izateaz gain, konbentzitura egongo ez bazina... kontua gaizki egongo litzateke, egia esan. Lehendabizi, hemen egin diren proposamen guztiak serioak dira. Esaten duzu zalantzak dituzula Elkarkidetzari buruz egin dudan proposamenen inguruan, dirua langileena delako, bada, ordaindu langileei! Hemen ez du balio esatea Madriletik behartzen nautela eta... ez al zarete zuek ba desobeditzaile zibilak? Ez al zarete mila gauza? Eta orain esaten duzue diru hori langileena dela. Ez, diru hori herriarena da. Eta egia da hemen langileen eskubideen aurkako neurri bat dagoela, eta hori betetzera behartuta gaudela. Eta, bigarrenik, ezin denez horretarako erabili, erabili egindako proposamenerako. Hor 3 puntu daude: enplegua, merkatariza eta kaleratzeak. Eta, "aurrekontu batean ezin da dena sartu" esandakoari buruz, noski! Jakina! Hori da politika: proiektu bat eta baliabide batzuk izan eta azken horiek ahalik eta hobekien erabili proiektu hori betetzeko. Lehentasunak ezarri behar direla, noski! Nik, Beñat, batzuetan, zalantzan jartzen dut zure postuaz jabetu ote zaren. Zu zara alkatea, zuk duzu gehiengoa, eta hortik arrabola guk sortzen dugula esatera, tira! Tira! Hori asko esatea da. Batzordeetan beti entzun izan dituzuela gure proposamenak, eskerrik asko! Horrek esan nahi du joan garela batzorderen batera. Eta berriz gogoraraziko dut, batzordeak informatzaileak dira. Alde batetik gure ekarpenak behar baldin badituzu, eta, bestetik, parte hartze prozesutik sortutako proposamenak jarraitu behar baldin badituzu, batzuetan zalantzan jartzen dut zertarako dagoen gobernu taldea eta zertarako dauden 50.000 euro inguru kobratuko duten bi liberatu. Ondo dago, oso ondo hitz egiten duzu, suabe... baina, zertxobait gehiago behar da. "Niri eskatzen didazue inizatiba" hori, nori eskatu behar diogu edozeri buruzko inizatiba, ba? Nori?

* Alkate jauna: inizatiba, bai, eta izan dut. Baina, ez dut ahalegin txikienik ere gehiago egingo. Urte eta erdi daramatzagu horrela, eta gauza bera pentsatzen jarraitzen dut. Arrabola pasatzea zuen jarreraren ondorio da, lurra oso leun lagatzen baituzue guk gainera pasatzeko. Zergatik? Gauzak oso landuta eta oso pentsatuta ekartzen ditugulako. Pentsatu gura duzuen, baina, zuk kritikatzeko duzu ez dakizula karguaz jabetu garen. Gu jabetu gara, denbora daramatzagulako lanean, ez dakidana da zuek gura ote duzuen jabetzeaz. Hemen

noizean behin agertzen zaretelako, eta askotan, osoko bilkuratek osoko bilkurara... Eta, ondo esan duzun bezala, batzordeak informatzaileak dira, eta zer gertatzen da? Bada, batzorde informatzaileetara etortzen ez zaretenez, eta, beharbada, aktak ere irakurtzen ez dituzue, gertatzen dena da hemen informazio bera errepikatu behar izaten dugula. Gaiak hobeto ezagutu eta informazio gehiago edukiko bazenute, seguru udalbatzar hauek laburragoak izango lirakeela. Eta adibide asko ditugu jartzeko. Parte hartze prozesuen izatea da gobernu talde honek politika herriarekin egin nahi duela, eta niri ez didazu leziorik eman behar lehentasunak nola finkatu erakusteko, aurrekontu hauetan lehentasun asko jarri behar izan ditugulako, nahiz eta zuek errepikakorrak edo iazkoen antz handikoak direla uste izan. Niretzat koherentea ez dena da esatea ez dugula inolako proiekturik, ez duzue ezagutzen edo ez duzue inolako ahaletan egin ezagutzeko. Badakizu zer ez dudan ezagutzen nik? Zuen proiektua. Zer proposatu duzue orain arte Eskoriatzarentzat? Ia ezer ez. Hori bai, gu herriarengana joan gara eta esan diegu: "zer irizten diozue? Guk hau pentsatzen dugu". Eta beraiek pentsatzen dutenaren eta guk pentsatzen dugunaren artean proiektua egin dugu, jarduerak proposatu, eta horren guztiorren isla da aurrekontua. Orduan, lehenengo, hobeto informatu zaitez. Azkenik, amaitzeko, esan gura dut baduzuela zuen proposamenak egiteko bide bat: alegazioak, eta horretara gonbidatzen zaituztet.

* Madinabeitia jauna: aurrekontuei dagokienez, hasieran esan da onenak direla. Tira! beharbada, ez dira onenak izango, ez dakidalako zein puntura arte iritsi daitekeen perfektiora, baina, bat nator esaterakoan oso landuak izan direla. Oso landuak izan dira eta azken unera arte hor ibili gara gure proposamenak eta ekarpenak aztertzen eta eztabaidatzen. Eta, gainera, uste dut oso zintzo eta garbi egin direla, eta baita itxaropenez ere. Ez bakarrik bertan jasotakoa egiteko itxaropenaz, baita jasotzeko gelditu dena ere egin ahal izateko itxaropenez ere. Dena ezin izan dela sartu, jakina! Eta hori da esateko dudak guztia, uste baitut ez duela zentzurik gainerako eztabaidan sartzerik.

Hitz egiteko txandak amaituta, Alkateak bototara jarri du aurrekontu proposamena, eta 3 boto aurka (Urrutia jauna, Cantero jauna eta Merino jauna) eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideen aldeko botoak jasota, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udaletxeko Aurrekontu Orokorra osatzen duten aurrekontu guztien eta bakoitzaren gainean Idazkaritza-kontuhartzaitzak egindako txostenaren eta bere edukien jakitun gelditzen dira, eta zehazki, horietako bakoitzean aurrekontu-egonkortasun helburua betetzeari, eta hala bada, ez betetzeari buruz, Aurrekontu-egonkortasunaren Lege Orokorreko 19 artikuluko 1 eta 3 ataletan aurreikusitakoaren arabera.

Bigarrena.- Hasiera batean onartzea honako kopuru honetako udal aurrekontua: 5.207.195,45 €

Hirugarrena.- Hasiera batean onartzea honako kopuru honetako Telesko-Udal Telebista fundazioaren aurrekontua: 64.792,36 €

Laugarrena: 2013ko aurrekontua exekutatzeko oinarriak eta 2013ko aurrekontu orokorra osatzen duen gainontzeko dokumentazioa hasiera batean onartzea, apirilaren 15eko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz (LED) onartutako Testu Bategineko 445. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena.- Onarpena behin betikotzat jotzea inolako erreklamaziorik ez balego, erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko 15 egunez erabakia jendaurrean egon ondoren.

3.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Baja ematea aurreko ekitaldietan onartutako eskubide hauei, eta kobratutakoa itzultzeko agintzea.

IBI – ERREZIBOAK 2011	ZENBATEKOA (€)	ZERGADUNA	ZERGATIA
IBI – ERREZIBOAK 2012			
6048197B	166,39	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048205H	292,44	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048206P	166,40	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048207A	166,41	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048209Q	166,41	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048210X	166,40	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048211W	166,40	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048213P	166,38	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048214A	166,38	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048195Y	166,38	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048219R	166,38	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048220P	166,38	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048221A	166,38	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048197B	171,38	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048205H	301,22	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048206P	171,39	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048207A	171,40	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048209Q	171,40	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048210X	171,39	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048211W	171,39	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048213P	171,37	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048195Y	171,38	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048220P	171,37	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048221A	171,37	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
6048222Y	171,37	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	GAIZKI LIKIDATUTA.
2011ko LIKIDAZIO BERRIA	335,25	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	EZ DAGOKIO. ETXEA SALDUTA 2010ean. (Erosleak ordainduko du)
2012ko LIKIDAZIO BERRIA	342,08	INMOBILIARIA KUATRUENA, S.A.	EZ DAGOKIO. ETXEA SALDUTA 2010ean. (Erosleak ordainduko du)

4.- 2013. URTEKO LANPOSTU ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA.

Pertsonal Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2013rako plantilla organikoa eta lanpostu zerrenda onartzea hasiera batean.

Bigarrena.- Dokumentu biak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarrena.- Onarpena behin betikotzat jotzea inolako erreklamaziorik ez balego, erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko 15 egunez erabakia jendaurrean egon ondoren.

5.- LANGILEAK KONTRATATZEKO EDO FUNTZIONARIOAK IZENDATZEKO IRIZPIDEAK.

20/2011 Errege Lege Dekretuko 3. artikuluko 2. atalak honako hau dio:

2012an ez da aldi baterako langilerik kontratatuko, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik edo bitarteko funtzionariorik izendatuko ere, salbuespenezko kasuetan eta premiazko behar atzeraezinak estaltzeko izan ezik; azken hauek, gainera, lehentasunezko edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragiten duten sektore, eginkizun eta kategorietara mugatuko dira.

Debeku hori 2013rako aurreikusita dago Estatuaren 2013ko Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012ko Legeko 23. artikuluko bigarren atalean.

Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Estatuaren 2013ko Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012ko Legeko 23. artikuluko bigarren atalean lan eskaintza publikoari eta langile beharrak betetzeari buruz agindutakoa betetze aldera, ondorengo irizpideak finkatzea.

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea udal zerbitzu eta departamenduetako teknikari eta politiko guztiei.

IRIZPIDEAK

Lehenengoa.- 2013ko ekitaldian ez da egongo lan eskaintza publikorik.

Bigarrena.- 2013eko ekitaldian, arau orokor moduan, ez da kontratatuko aldi baterako langilerik eta ez da izendatuko bitarteko funtzionariorik.

Hirugarrena.- Salbuespen gisa, eta bakar bakarrik ondorengo egoeratan, kontratatu ahal izango dira aldi baterako langileak edo izendatu ahal izango dira bitarteko funtzionarioak.

Aldi baterako kontratazioa edo bitarteko funtzionario izendatzea premiazko behar atzeraezinak estaltzeko izatea, eta gainera, baldintza hau bete beharko da:

Aldi baterako kontratazioa edo bitarteko funtzionario izendapena lehentasunezko arlo, funtzio eta lanbide-kategorietarako izatea edo oinarrizko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragina izatea.

Helburu horretarako:

LEHENTASUNEZKOAK IZANGO DIRA ondorengo baldintza guztiak betetzen dituzten lanpostuak: a) 2013ko lanpostu zerrendan egotea (zerrenda hori onartzea ere proposatzen zaio Udalbatzarrari), b) aurrekontu zuzkidura izatea, eta c) beharrezkoak izatea gaur egun eskaintzen den zerbitzuaren kalitate maila bermatzeko.

OINARRIZKO ZERBITZUAK ondorengoak izango direla ERABAKI DA: Brigada, udaltzaingoa eta gizarte zerbitzuak.

Hala ere, aldi baterako kontratazioa edo bitarteko funtzionario izendatzea behar beharrezko denborarako bakarrik egingo da.

Laugarrena.- Aurreko puntuan araututako aldi baterako kontratazioa edo bitarteko funtzionario izendapena egin aurretik, ezinbestean, langile hori hartu behar duen departamendua aldi baterako langilearen behar horri erantzuten saiatu beharko da udalak erabilgarri dituen giza baliabideak berrantolatuz.

Bosgarrena.- Ez da ordezkapenik egingo hurrengo kasuetan:

- Oporrak.
- Gaixotasun edo istripu lizentziak, lizentziaren iraupena 15 egun naturalerako edo gutxiagorako denean.
- Aitatasun-lizentziak.
- Familiarteko baten heriotzagatik, istripuarengatik, gaixotasun larriarengatik edo ospitaleratzeagatik lizentzia.
- Ezkontzeagatik edo izatezko bikotea sortzeagatik lizentzia.
- Nahitaezko betebeharrak egiteko lizentzia.
- Prestakuntza ikastaroetara edo euskara ikastaroetara joateko lizentzia.
- Ohiko etxebizitza aldatzeagatik lizentzia.
- Zentro Ofizialetako azken azterketetara joan ahal izateko lizentzia, nahiz eta funtzio publikoarekin edo betetzen duen lanpostuarekin zerikusirik izan ez.
- Mediku kontsultetara, tratamenduetara eta azterketetara joateko lizentzia.
- Norberaren arazoetarako lizentzia.
- Barne sustapenerako ikasketak edo probak egiteko baimena.

- Norberaren arazoetarako ordaindu gabeko baimenak, baimenaren iraupena 15 egunekoa edo gutxiagokoa denean.
- Izaera zientifikoa, teknikoa, profesionala, kolegiatua, elkartekoa edo sindikala duten ekitaldi kolektiboetara joan ahal izateko baimena.
- Lanaldi murriztua, murrizpena % 25ekoa edo txikiagoa denean.

Seigarrena.- Edozein modutan, eta inolako salbuespenik gabe, aldi baterako kontratazioa egiteko edo bitarteko funtzionario izendatzeko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Arloko edo departamenduko arduradunaren JUSTIFIKAZIO XEHATUA honako hauei buruz:

Sortutako beharrari aurre ezin egin izana udalean eskuragarri dauden baliabideekin eta giza baliabideak berrantolatzeke dauden formulak erabilita (funtzioak berresleitzuz, ordutegia aldatuz, zerbitzu-eginkizunak erabiliz, zeregin-pilaketaz eta abar).

Beharra premiazkoa eta atzeraezina izatea, kontratazio egin behar duen arloak edo lanpostuaren funtzioak lehentasunezko izaera izatea eta oinarrizkotzat jotako udal zerbitzu baten eragina izatea.

- Beharrezkoa izanez gero, ARDURADUN POLITIKOAREN ONIRITZIA.
- KONTUHARTZAILTZAREN TXOSTENA, kontratazio hori egiteko behar besteko aurrekontu zuzkidura dagoela esaten duena.
- TXOSTEN JURIDIKOA.

6.- UDALAREN ADMINISTRAZIO KONTRATUETAN TXERTATU BEHARREKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ETA HORIEK EZARTZEKO PROZEDURA ONARTZEA.

Alkateak jakinarazi du batzorde bat egin zela Gipuzkoako hainbat udaletako eta Foru Aldundiko teknikariekin kontratazio baldintza agirietan sartu beharreko hizkuntz eskakizunei buruzko proposamen bat egiteko. Udal guztiei egiten zaien proposamena da, eta horrekin, irizpideak kontratuko helburuen eta horren jasotzaile zuzenen ezagurrietara egokitzea lortu gura da.

Bertaratutako guztiak jakinaren gainean gelditu dira -aurrez Parte hartze eta komunikazio batzorde informatzaileak egindako proposamenaren kopia zuten-, eta Alkateak bototara jarri du eskakizun horien onarpena.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak onartu egin ditu Eskoriatzako Udalaren kontratazio publikoetan sartu beharreko hizkuntz eskakizunak. Eskakizunak akta honen eranskin gisa doaz.

7.- “ESKORIATZA GARBIA-NO AL PUERTA A PUERTA” PLATAFORMAREN ESKARIZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Osoko bilkurara etorritako jendearen artean “Eskoriatza Garbia-No al Puerta a Puerta” plataformako ordezkari asko daude. Alkateak hitza eman die eztabaidatzeko eta bozkatzeko beraiek eskatuta ekarritako mozioa aurkezteko.

Horrela, hitza eman ondoren, plataformako bi kidek mozioa aurkezteko eta mozioan jasotako eskariak egiteko arrazoiak azaldu dituzte. Esandakoen artean, zalantzan jarri dituzte udal zerbitzu teknikoak Atez Ateko bilketa sistemari buruz egindako txostenean jasotzen diren datuak (ez da jasotzen kide horiek esandakoa, baina, jasota gelditzen da beraiek esandakoa grabatutako zinta batean jasota gelditzen dela espedientean). Ondoren, horietako batek mozioaren testua irakurri du; hitzez hitz, honako hau:

Notario eta Udal honen aurrean aurkeztutako 1.240 sinaduren izenean, guk, "Eskoriatza Garbia – No al Puerta a Puerta" herri plataforma kide bezala, Osoko Bilkura honetan hondakinen batzeko sistemari buruzko mozio hau bozkatzea eskatu nahi dizuegu:

1.- 2012ko ekaineko Osoko Bilkuran "atez ateko" sistema jartzeko hartutako akordioa ezeztatzea eta, horren ordez, bosgarren edukiontzia jartzeko neurriak hartzea.

2.- Aurreko eskaera ezeztatu ezker, eta Udal honek bultzatutako "EskoHitza" Programaren ildoan, herritarrei kontsulta egitea zaborra biltzeko sistema aukeratzeko. Kontsulta honen emaitzak loteslea izan beharko du.

Plataformako ordezkarien hitzak entzun eta gero, ondorengo eztabaida izan da bertaratutako udalbatzarkideen artean:

* Sr. Ezpeleta: ezer baino lehen esan nahi dut gure borondate onenarekin ari garela sistema hau ezartzen, eta esan duzue hori eskertzekoa dela. Guk, gure aldetik, zuen borondate ona eskertzen dugu. Saiatzen ari zarete herriarentzat zuen ustez onena dena bultzatzen, eta horrek zorianak ematea merezi du. Bai komentatu nahiko nukeela zuek esandakoa: umeak ez garela, ez zaigula gustatzen behar gaitzaten eta borondate pixka bat behar dela. Guk ere sinestuko genuke hori guztiok egongo bagina behar beste kontzientziatuta arazo horri aurre egiteko, orduan ez legoke hau bezalako sistema bat ezartzeko beharrik. Uste dut horrekin denok ados gaudela. Baina, zoritxarrez, herriak duen borondate maila edo kontzientziazio maila ez da altua momentuz, eta uste dugu inposatu beharreko zerbait dela, eta gainera, pertsonalizatu behar dela. Bestela, zer gertatzen da? Ondo egiten dutenek edo dugunok gaizki egiten dutenen errua jasan behar izaten dugula. Zein den nire itxaropena? Beharbada, hemendik urte batzuetara ez dela beharrezkoa izango inposizio hori, kontzientziazio maila batera iristen baldin bagara ez da beharrezkoa izango pertsonalizatua eta derrigorrezkoa izatea. Momentuz, uste dugu horrela izan behar dela, eta gure herrirako sistema onena dela. Eta, amaitzeko, esan, Eskohitzako ekimena txalogarria dela, herriak ondo hartu zuela eta herria animatu gura dugula parte hartze prozesu horretan parte hartzen jarraitzea. Prozesu horretan zenbait gauza erabakita egongo dira, beste batzuk erabakitzeko, baina, uste dut herriarentzat positiboa izango dela.

*Urrutia jauna: lehendabizi, nik mozioaren alde bozkatuko dut, zeinak beti defendatu izan ditugun 2 puntu dituen: bata, atez atekoaren alternatiba bezala 5. edukiontzia ezartzea da, eta, bigarrena, horri buruz sortu den mugimendu sozialaren aurrean, guk beti defendatu izan dugu galdeketa bat egitearen beharra... Areago, hor egongo da aktetan, baina, uste dut Gipuzkoa osoan lehena izan nintzela horri buruzko galdeketa eskatzen, gutxienez, agintaldi honetan. Gauza bat kontatuko dizuet: nik elkarrizketa bat izan nuen eskualdeko Bilduko zinegotzi batekin, atez atekoaren gaia atera zen eta nik niri iritzia azaldu nion: sortu den arazo edo eztabaidari eman dakiokkeen irteera onena galdeketa bat egitea dela, eta horretarako bi arrazoi ematen nizkion: Atez Atekoak irabazten badu, 5. edukiontzikook konformatu beharko ginatke, eta 5. edukiontzikook irabaziz gero, Bilduk aukera ona izango luke hanka ateratzeko sartuta duen putzutik. Eta erantzuna honako hau izan zen: "Aitor, hori ideia ona da, ekarpen ona, baina, hori ezin da egin, zergatik ezin den egin? Proiektu estrategikoa delako Bildurentzat. Nik gauza bat ikusten dut, hemen, herrian batu diren 1.240 sinadura daude, uste dut 70.000tik gora direla Gipuzkoa osoan, edozein ekimenek bildutakoak baino askoz ere gehiago direla iruditzen zait. Eta, beste datu bat ere bada, 1.240 sinadura herri honetan edozein alkatek azken 30 urteko demok-

razia aldiaren lortutako firma eta boto baino gehiago dira. Uste dut azken 30 urteetan boto gehien lortu duen alkatea Beñat dela, 900 eta piku boto; ez dakit zenbatekoa den piku hori, baina, 1.240 hori baino gehiago dira. Ni (Beñati zuzenduta) zure lekuan banengo kontuan hartuko nuke datu hori. Igandean atera zen albisteari dagokionez, hor, 5. edukiontzia aurreratu Atez Atekoaren planteamendua zegoen. Oso gauza bitxiak zeuden, esaten zen % 70-80ko biketa mailara iritsi nahi zela, eta niri bapatean burura etorri zitzaidan galdera hau izan zen: bakarrik? Orain dela ez asko esaten baitzitzaien posible zela % 80tik gora birziklatzea. Eta uste dut osoko bilkura batean 2 gauza esan nituela: bata, gaikako bilketa eta birziklatzen dena bereizi beharra zegoela, eta, bigarrena, ustezko % 80 hori kopuru askoz txikiaren gainekoa zela, erdiaren ingurukoa. Eta, gero, orain dela gutxi ikusi ahal izan dugu Donostian % 60ra iritsi daitekeela. Hau da, Atez Atekoaren merituen kopuruak jaitziz doaz. Horretarako, txosten horretan esaten zen Elgoibar % 50era iristen zela bakarrik, baina, bitxia da PRIGUR-rak, egin zenean, % 57a aurreikusituen 2015erako, eta horrek, % 60ra iristen den Donostiako Atez Atekoaren merituetara bastante hurbiltzen da. Borondatezkoa derrigorrezkoa eztabaidan, guk beti borondatezkoaren alde egin dugu, eta uste dut azken urteetako datuek berresten dutela borondatezkoaren alde egin dugu. Ez dakit zehatz zein urtetan, baina, egon ziren Mankomunitateak emandako datu batzuk eta bertan esaten zen Eskoriatza zela gutxien birziklatzen zuen herria, eta oker ez banago, % 32ra iristen zela esaten zuen. Bai, baina, ikusi beharko litzateke zer nolako bilakaera izan duen denboran. Nik uste baitut borondatezkoaren eta derrigortasun hori kultura politikoaren parte dela. Guk pedagogia sozialean sinesten dugu, eta uste dugu jendea kontzientziatu daitekeela, eta % 32ko emaitzak baldin baditugu, sistema horrekin % 60ko kopuruetara iritsi ahal izango da 2 edo 3 urtetan; eta, areago, zehazki, nik usten dudalako eztabaida honek guztionek abantailaren bat baldin badu, abantaila hori da birziklajearen mentalitatea eta kontzientziazioa nahikoa zabaltzen ari direla. Gero, erraustegiaren gainean egiten zen entziklika dago, esaten baitzen hori gura izatea erraustegia gura izatea zela... Eta esaldi batekin amaitzen zen: erraustegiak 2014rako egin behar baldin badira, ez da egongo non bota gaika batzen ez den zaborra. Hala da. Noizbait esan dut hemen akatsa dela erraustegiari buruzko beldurraren kultura irekitzea, Atez Atekoak akatsen bat baldin badu, akats hori da ez diola irtenbiderik ematen birziklatu ezin den materialari; eta hori nonbait bota behar da, eta hondakindegia desagertzeaz daude Europaren aginduz. Esan dut ere bateragarriak direla Atez Atekoa, hondakinak gaika jasotzeko bide moduan, eta erraustegia, birziklatu ezin den materiala desagertarazteko azken urrats bezala. Horrela, beldurra eragiteko kulturaren eta benetan ez diren gauzak esaten aritzeak, demagogia itxura handia du benetan. Donostia aipatu dut eta berriz errepikatuko dut, guri esaten zaigu Atez Atekoaren % 70-80 berdinduko duen sistema bat aurkitu behar dela, kontxo! Badirudi % 70-80 herrietan dela, Donostian % 60a da, zergatik? Zer daude, lehen mailako eta bigarren mailako herritarak? Zergatik exijentzia gehiago eta derrigortzen hastea? Esaten da Donostian zenbait auzotan jar daitekeela, nola erabakitzen da zenbait auzotan egitea eta ez udalerrira osoan? Zergatik herri galdeketa auzoetan eta ez gehiengo osoa duten herrietan? Amaitzeko, datu bat emango dut bakarrik, hori ere udal honetatik kanpo jakin izan dudana: Mankomunitateak onartu du Atez Atekoak zabor tasa % 19,8 igotzea 2012-2016 aldiaren; 2013an % 13,6 garestiagotzea izango da; 2014an, % 2,6a; eta, 2015ean, % 5,6a, nahiz eta egia izan 2016rako aurreikuspena % 2,7 jaistea dela. Benetan uste dut badaudela datuak 5. edukiontzia alde egiteko, behar besteko eztabaida dago galdeketa bat egiteko.

* Alkate jauna:

Labur erantzungo ditut hemen emandako argudio batzuk, eta gero mozioaren edukiari buruz erantzungo dut. Niretzat, arazoa da 5. edukiontzia Atez Atekoaren alternatiba bezala planteatzen duzuela, eta ez arazo baten irtenbide bezala, eta guk planteatzen duguna arazoaren irtenbidea da. Badakigu, jakitun gara, hondakinaren kudeaketa arazo bat dela, eta Eskoriatzako Udalak planteatzen duena irtenbide bat da. Egia da, eta horregatik, astelehen honetan atera genuen prentsa oharrean bilketa sistema bat baino gehiago konparatu genituen. Konparazioz, gure ustez, eta txosten teknikoetan oinarrituz -kontra egin eta interpretatu daitezkeenak- sistema onena da. Aitorrek eman duen datu dantza ere komentatu nahiko nuke, hasiera batean % 70 edo % 80koa zela, Elgoibarren % 50 ingurukoa. Bada, udal bakoitzak jartzen dituen helburuak dira, eta nik uste dut udal gobernu bakoitzak bere herriko hasierako egoeraren jakitun finkatzen dituen helburuak dire-

la. Horregatik, uste dut kontua ez dela Elgoibar % 50era iristen dela, baizik eta % 50a gobernu ekipoak jartzen duen helburua dela. Gure ustez, nahikoa ez dena. Arazo honi irtenbide eraginkorra eman nahi baldin badiogu, kontziente izan eta derrigortuko duen sistema bat planteatu behar dugu. Egia da, eta entzun behar izan dugu: derrigortasuna! Derrigortzea gustatzen zaizue? Ba, zoritxarrez, eguneroko bizimodua derrigortasunez bete da dago, segurtasun uhala derrigorrez jarri behar dugu, errentaren gaineko aitortpena derrigorrez egin behar dugu, eta milioika gauza segurtasunaren, osasunaren, ingurumenaren eta pertsonen arteko bizikidetzaren alde egiten ditugunak. Eta ziur asko -badirudielako gure inguruan osasunaren eta ingurumenaren gaineko kontzientziazioak ez duela funtzionatzen- neurriak hartu beharko ditugu Atez Atekoarekin -birziklatzeko derrigortasuna- emaitza onak izateko. Hori da benetan guk uste duguna. Aitorri kritika txiki bat egitea nahiko nuke, esaten duelako beti egin dutela borondatekotasunaren alde; bada, zaborren kontuan izango da, baina, EAJ denez urte gehien gobernatu duena Gipuzkoan eta Euskadin trantsiziotik, uste dut herri honetan inposizio gehien egin dutenak zaretela. Areago, erraustegiari berari buruz, uste dut sinadurak bildu zirela kotsulta bat egin zedin, eta uste dut sinadurak kajo batean gelditu zirela eta ez zela erantzunik eman. Orduan, bada pixka bat kontraesankorra kotsulta bat eskatzea norbera horretan eredu ez denean izan, eta besteei izateko eskatzen dienean. Hala da, zurekin bat nator esaten duzunean azken urte honetan Gipuzkoan sortzen ari den nahaste guzti honek, batez ere, abantaila bat duela, hau da, gero eta mentalizatuago eta kontzientziatuago gaudela arazo horri buruz eta arazoaren irtenbideari buruz. Eta esaten ari zara beldurraren kulturari ari garela, bada, pixka bat bai, badirelako txostenak esaten dutenak erraustegiek eragina dutela osasunean. Orain dela gutxi, Madrileko erraustegi bati buruzko ikerketa egin zuen Carlo III unibertsitateko txosten bat argitaratu da, eta ez dut esango hemen minbizirik eragingo duen edo ez dakit zer... baina, bai, eragina izango duela. Horregatik, gure apostua da erraustegirik ez izatea ez hemen Eskoriatzan, ez Zubietan, ez beste inon. Egia da, Atez Atekoa ez da egun batetik bestera gure arazoak konponduko dituen alternatiba bat, baina, guk uste dugu % 70-80ko birziklaje helburuak lortu ditzakegula, guk argi dugu. Eta mozioan eskatzen denari dagokionez, 2012ko maiatzaren 31n guk 9 puntu zituen mozio bat proposatu genion Udalbatzarrari. Horietako lehenak jasotzen zuen gure helburua % 70a baino gehiago birziklatzea zela, % 86a birziklatuz gero, hobe. Badakigu hondakinen zati bat ezin dela birziklatu eta irtenbideren bat eman behar zaiola, eta esango dut, eta zuek badakizue, guretzat ez dela erraustegia. Baina, mahaiganean dugun mozioan pixka bat zentratuz, 1. puntu esaten du baliogabe uzteko Atez Atekoa ezartzeko 2012ko uztailean Udalbatzarrak hartutako erabakia. Gogorarazi nahiko nuke ez dela Udalbatzarraren erabakia, mozioa baizik, eta mozio horrek 9 puntu zituela, eta 9 puntu horietatik asko prebentzioarekin lotuta zeudela, eta % 70 lortzeko helburu argiak jasotzen zituela; eta eskatuko nizueke ez eskatzeko mozio osoa baliogabetzeko, baizik eta ados ez zaudeten puntuak. Nik uste dut eztabaida honen ardatza bilketa sistema dela. Esan duzuenagatik, nik uste dut ez zaudetela mozio honetan agertzen diren beste puntu batzuen aurka. Aitorrek egin digun irakurketa, politikoa dela esan dezakegu, esan du 1.240 sinadura batu direla, ni izan naizela azken 30 urteetako Alkaterik bozkatuena, ez nekien... baina, hori horrela izan edo ez, uste dut Udalbatzar hau 11 zinegotzik osatzen dutela, eta 2012ko ekainean, 11 zinegotzitik 7k mozio horren alde bozkatu zuten, eta gero beste batek ados zegoela esan zuen nahiz eta osoko bilkura horretan ez egon, horrela, esan dezakegu udal honetako 11 pertsonatik 8k onartu zutela mozio hori, eta gainera, 3 alderdi politikoetako ordezkariak zirela. Hori ere herriaren borondatea da. Guk, adibidez, programan eraman genuen zabor bilketaren sistema aldatzea, eta sistema hori aldatzeak esan gura du boto bidez beraien konfidantza eman ziguten pertsonen huts egingo genitela. Ez dut nahi zenbaki gerran sartzerik eta zeinek dituen sinadura gehiago eta zeinek izan dituen boto gehiago hasterik nahi, baina, mozioaren alde egin zuten BILDUren eta Elizatekoen botoak zenbatzen baldin baditugu, eta horiei geroago mozioara atxiki zen Ezker-Anitzakoak gehitu, seguru 1.240 horiek baino gehiago direla. Baina, horretaz guztiorretaz gain, ikusten da Eskoriatzan eta Gipuzkoa osoan kezka dagoela hondakinak biltzeko sistemaren aldatzea honi buruz. Aitortu dugu hori positiboa dela, oraingoan, modu batera edo bestera, arazoa konponduko dugulako. Benetan, gu egiten ari garena, asmo onez egiten ari gara, ez gara alirizira ari, beti oinarritu gara txosten teknikoetan; horiei milioika zehaztasun egin ahal izango zaizkie, zuek guri eta guk zuei, baina, hori da gure borondatea. Gaiari buruz eztabadaitzen jarraitzea gonbidatzen zaituztet. Nik proposatu behar dut Udalbatzarrak bere garaian onartutako mozioa ez baliogabetzea. Uste dut bere garaian hartu

zen erabakia ona dela, eta indarrean jarraitzea nahiko nuke. Eta esaten duzue lehenengo puntua ez bada onartzen kontsulta prozesu bat irekitzeko eta loteslea izan dadila. Lehen Igorrek esan duena egia da, Bergaran eta Oñatin egiten ari diren prozesu parte hartzearen moduko bat egin behar da. Eta egia da gu Atez Atekoaren alde gaudela, eta askotan, kontu asko erabakita etorriko dira, izan ere, onerako edo txarrerako, hondakinak biltzeko zerbitzu hau mankomunatu baitugu eskualde osoan, eta batzuk aurreratuago doazenez, bada, guk onartu beharko ditugun gauzak erabakita dituzte ziur aski. Baina, gauza asko egongo dira erabakitzeko, Atez Atekoa sistema malgua baita, barianteen artean erabaki beharreko gauza asko dituena, eta jendeak bere ekarpenak egiteko prozesu bat jarri behar da martxan, eta horretan parte hartzea gonbidatzen zaituztet. Parte hartze prozesu hori uda ostean hastea aurreikusita dago, ez dakit zenbat iraungo duen, 2 edo 3 hilabete, eta niri tonu hau mantentzea gustatuko litzaidake, baitirudi beste udal batzuetan arazoak edo ustezko arazoak egon direla. Uste dut harreman adeitsua izan dugula gai honetan, eta horrela jarraitzea gurako nuke. Azkenik, esan egia dela kontsulta bidezko demokrazia zuzena tresna ona dela, baina, uste dut horrelako kasuetan erreferenduma moduko metodologiak kalitatezko parte hartze prozesu baten ondoren egin behar direla, eta kalitatezko parte hartze prozesu horretako lehen pausua informazio osoa izatea dela, parte hartzaileen inplikazio handikoa. Eta dudan sentsazioa da, gaia enkistatuta dagoen moduan, parte hartze prozesu hori ez litzatekeela kalitatezkoa izango. Dena den, esan behar da Usurbilen, sistema hori jarri zuen lehenengo herrian, kontsulta egin zela, baina, kontsulta hori gerora egin zela. Herriak aukera bat eman zion Atez Atekoari, probatu egin zuten, eta hilabete batzuk geroago kontsulta egin zen, eta kontsulta horretatik aterata zen Atez Atekoarekin jarraitzea. Horrelako zerbait ondo ikusiko nuke, uste dudalako behin probatu eta gero informazio osoagoa eta egiazkoagoa izango dugula Atez Atekoa gustatzen zaigun edo ez esateko. Orduan, printzipioz, mozioaren aurka bozkatuko dut.

* Urrutia jauna: esan dituzun puntu batzuk komentatzea nahiko nituzke. Bata, mozioari lotzea buruzkoa, nire ustez gaia ezin da bakarrik mozioari lotu horri buruz bakoitzak dugun iritziak eztabaidatu gabe. Bi, esaten duzue guk 5. edukiontzia alternatiba bezala planteatzen dugula. Beste behin galtzari buelta ematen diozue. Sistema nola zegoen ikusita, bide normala 5. edukiontzia jartzea zen. Sistema honen alternatiba bezala gaikako bilketa sistema besterik ez den sistema berri bat, bilketarako bakarrik, jarri dutenak zuek zarete. Beraz, utzi ditzagun gauzak garbi. Badirudi gauzak gaizki azaldu ditudala, baina, guk ez dugu 5. edukiontzia Atez Atekoaren alternatiba bezala proposatzen, Atez Atekoa da gaiak zeramatzen bidetari alternatiba bezala aurkeztu dena. Eta Atez Atekoa gaikako bilketa sistema bat da bakarrik. Ez dio irtenbiderik eskaintzen birzikla ezin den materialari, eta horrela, hemen esan daiteke zuek zaretela arazoa sortzen ari zaretenok irtenbide bat zegoen lekuan. Ez zaretelako gai birzikla ezin den materialari, prozesuaren azken zatitari, irtenbide bat emateko. Hara! Antzuolan 380.000 tonatik 200.000 tonara jaitsi baldin badira, jaitsi diren 180.000 tona obra-hondakinak direla esatea, nire ustez asko esatea da. Ez dakit zenbat obra-hondakin botatzen diren Antzuolan... Esaten duzue Elgoibarren egin den planteamendua ez dela nahikoa, baina, errealista izan daiteke. Ez da nahikoa zure ikuspuntutik. Gure ustez, kasu gehienetan % 40tik % 50era pasatzen ez diren kantitateetatik gora igarotzea ez da urrats hain kritikagarria, eta hori horrela da zuek sinesten ez duzuen lan bat dagoelako: jendea kontzientziatzen joatea, pedagogia soziala deitu genezakeena. Inposizioaz hitz egin duzu, EAJ da gehien inposatu duena. Ez dugu inposioez, iraganaz eta gaiak eskualde honetan hartu duen beste alderdi batzuetaz hitz egingo. Baina zuek egin beharko ez zenuketena -EAJ izanik inposizio gehien egin dituena, eta zuek hain matxino izanik inposizio guztien aurka- erregea baino erregetiarra izatea da; ea zuek erakutsi behar diozuen zuen gurasoei nola egiten diren umeak inposizio kontu horretan. Bizitza santu guztian denari buruzko kontsultak eskatu dira, eta orain, berriz, aurrez baldintzak behar dira gaia oso korapilatuta dagoelako gizartean. Tira! Koherentzia pixka bat. Eta, gero, honakoa esaten duzu: "erraustegiari buruzko beldurraren eztabaida irekitzen ari gara", zergatik? Kutsatzen duelako? Minbizarengatik?... Eskoriatzaz hitz egingo dugu? Ederlanez hitz egingo dugu, urruti joan gabe? Kutxaduraz hitz egingo dugu, kotxeak pintatzeko dirua ere ematen zen garaietaz? Zer egingo dugu? Ederlan kenduko dugu? Hori da gelditzen ari zaizuen ia argudio bakarra, eta gainera, ez da egia. Eta hizpidera ekarriko dut maiatzean ekarri nuena (2012ko ekainaren 4an transkribatuta

dauden Michael Weltzin doktorearen ponentziaren ondorioei buruzko testua irakurri du). Jarraitzen du: niretzat datua honako hau da: gehien birziklatzen duten herrialdiak dira hiri hondakinen materiari eman beharreko azken irtenbidean birziklatu ezin den materiala errausten dutenak. Gero honako hau esan duzu: Aitorrek irakurketa politikoa egiten du, hori *per se* negatiboa balitza bezala! Baina, nik ez dakit irakurketa politikoa ote den esatea hemen 1.240 sinadura daudela; eta nik dakidanera arte, beste 200 ere badira, formazko hainbat konturengatik notarioak onartu ez zituenak, eta horiek demokrazia garaiko edozein alkatek izan dituen botoak baino gehiago dira. Honakoa esaten duzu: guk, hemen, 11tik 8k onartu genuen. Eta, hori, ez al da irakurketa politikoa? Sinadurak ikustera joango bazina, harrituko zinateke zuri bozkatutako zenbat jendek sinatu duen hau. Eta, hain ziur bazaude gehiago direla Atez Atekoaren alde daudenak 5. edukiontzia alderaren alde baino, zeri diozu beldur? Zeri diozue beldur kontsulta egiteko irabazteko eta gehiago izateko hain ziur baldin bazaudete?

* Merino jauna: orain, hondakinen gaia aztertzerakoan zentzuz eta zehaztasunez aritzeko eskatzea soberan egon beharko litzateke. Baina, zoritxarrez, ikusitakoak ikusita, ematen du zentzu osoa duela momentu honetan. Eskoriatzako Ezker Anitza-IU taldetik hondakinen gaia behin eta berriz, modu interesatuan, erabilia izan den hondakinak biltzeko eztabaidara mugatu gura izatearekin nazkatuta gaudela adierazi gura dugu jendaurrean. Dagoeneko topikoa den "Atez Atekoa edo 5. edukiontzia". Ematen du batzuk bereziki eroso sentitzen direla eztabaida kontu horretara mugatuta. Egia da hondakinei buruzko eztabaidaren elementu bat dela, baina, ez da eztabaida bere osotasunean. Hondakinak murrizteko eta gutxiago sortzeko zer egin daitekeen, nola egin gehiago birziklatzeko eta berreskuratzeke... horrelako gaiak alde batera uzten dituzte hondakinak beraien arteko borroka politikarako tresna egin dutenek. Gai honi zentzuz helduz gero, arduratu egin beharko ginateke eta galdetu zergatik Eskoriatzan gaikako bilketa % 32 inguruan egonkortu den, eta zergatik hondakindegietara eramaten den hondakin kopuruak gora egin duen. Zentzu horrek berak galdera hau ekarriko luke: zer egin behar dugu 2013. urterako hondakin kontu honetarako aurreikusitako gastua probetxugarria izateko? Gastu hori gutxitu beharko litzateke hurrengo ekitaldietarako? Zein da bidea? Zeintzuk dira beharrezko tresnak? Beharrezkoa da gastu handiagoa, baina, hobea? Uste dugu kontu horiei erantzutea dela herritarrek udal talde politikoei eskatzen digutena. Baina, herritarrei beraiei dagokiena ere bada. Horregatik, Ezker Anitza-IU taldetik, ezinbestean, gure babesaren ematen diegu gaur egun gure herrian, eta gure herritarrek sortuta, egiten ari diren ekimenei. Kaltegarria litzateke, eta heldugabetasun politikoaren erakusle, horrelako ekimenak gutxiesten edo zailentzen jartzen saiatzea. Hondakinak biltzeko sistema baten edo beste baten alde, aurrekoaren aurka norberaren futbol taldearen alde egiten den bezala, egitea baino askoz gehiago dira ekimen horiek. Hondakinena ez da "zale" gehien biltze kontua, baizik eta nola aurkitu irtenbide onenak hondakinek sortzen diguten arazoari. Ezker Anitza-IU-rentzat, gai honetan beharrezkoa den zentzunak denok eramango gaitu bakoitzak hasieran izan ditzakegun planteamenduen gainean mugitzera. Hondakinen arazoa bere osotasunean hartzea eta ez partzialki. Ezker Anitza-IU-k udal talde politikoek bat egin dezaketen puntu bila aritu da eta arituko da, eta horrela egiten dugu, uste dugulako egin daitekeela. Eztabaida honetan sobera dagoena immobilismoa eta oportunismo politikoa dira. Kontsentsua da behar dena. Zehaztasunean eta zentzunean oinarritutako kontsentsua.

* Alkate jauna: laburbiltzen saiatuko naiz, ea eztabaida amaitzen dugun. Uste dut jarrerak argi daudela, baina, badira komentatu nahiko nituzkeen gauza berriak. Lehenengo, esango dizut, Aitor, hala dela, guk uste dugula Elgoibarren jarri duten helburua ez dela nahikoa, eta asko poztuko nintzateke % 36tik % 50era igaroko balira. Eta poztuko naiz, zeren eta ausartak ez diren herrietan, eta beraien herritarrek birziklatzea behartzen ez dituztenak, egingo den apurra ona izango delako. Horregatik, guk Eskoriatzan autokopostaje guneak irekitzeko asmoa dugu, ez zegoelako aurreikusita hondakinak biltzeko sistema 2013an aldatzea. Eta jendea kontzientziatzea ondo dago, guretzat 5. edukiontzia ez da sistema txarra, ona da, baina, uste dugu emaitzak oso astiro lortuko litzatekeela, eta arazo larri bat dugu, eta gainera, behartzen gaituzten europako zuzentarauak, eta Aldundiak onartutako eta proiektuan dituen planak. Eta ez gara erregea baino erregetiarragoak izango. Uste dut Bildukoen politika egiteko modua EAJ-k egin duenetik oso ezberdina

dela, niri gustatuko litzaidakeelako jakitea zenbat parte hartze prozesu izan dituen EAJ-k gobernatu duen denboran. Hor dago Bizkaia. Nire ustez EAJ-k interes politikoak zituen gai jakin bati buruzko kontsulta eskatzea, sentitzen dut, baina, hori ez da lan egiteko parte hartze modu bat izatea... eta nik uste dut guk badugula erakutsi dugula. Eta Juan Luisi esan nahiko nioke guk ez dugula inoiz gutxietsi plataforma, errespetuz tratatu dugula, eta areago, uste dut aurreko prentsa oharrean esan genuela beraien jarrera laudagarria zela, interes komunen alde ari direla borrokan, Eskoriatzaren interesen alde, nahiz eta gurekin jarrera bat eta desadostasuna izan. Ulertzen dut beraien ideiak adieraztea, planak aurkezte, eta uste dugu ondo dagoela zentzua erabiltzeko eta akordioa lortzeko deia egitea, oxala lortuko bagenu! Nik eztabaidatzen jarraitzea gonbidatzen ditut, parte hartze prozesuan jarraitzea, eta jartzen dena jartzen dela, ea irtenbide bat ematen zaion arazo honi.

* Urrutia jauna: Juan Luisi erantzunez: zentzuna eta zehaztasuna eskatzen dituzu. Ados nago, non dago zehaztasuna eta zentzuna? Non sortu zen arazo bat konponbidea zegoen lekuan? Eta borroka politikoaz hitz egitea, eta hona ez garela etortzen gure futbol taldea animatzera joango bagina bezala... begiratu gaurko osoko bilkura, zuk uste duzu jendartean daudenak futbol talde bakar bateko zaleak direla? Orduan, hortik hasita, nik zentzuna eta zehaztasuna eskatuko nizuke.

Merino jaunak berriz errepikatu du lehen esandakoa, eta adierazi du ez duela esan txalokatzerara etortzerik edo horrelakorik, esan nahi izan duena dela akordioetara iritsi gaitzekela. Ezker Batuak aurkeztu eta Udalbatzarrak onartutako mozioa gogorarazi du, eta honako hau gehitu du: Atez Atekoarekin ados gaude, jakina da; erraustegiaren aurka, baina, herritarren parte hartzearen alde ere bagaude. Ondo ikusten dut ere Eskohitza prozesua, nahiz eta erren egon ez dagoelako joko araurik, baina, denborarekin iritsiko dira. Mozio horretan, bigarren puntuan, honako hau eskatzen zen: *Gutxieneko birziklatze maila horretara heltzeko helburuarekin, eta gure herrian jarri beharreko hondakin bilketa eredu erabaki aurretik, parte hartze prozesu bat martxan jartzeko eskatzen dio Udalbatzarrak udal gobernari. Prozesu horretan benetako informazioa, gardena eta osoa eman beharko da hondakinen tratamenduari eta bilketari buruz, eta baita erraustetak pertsonen osasunarentzako eta ingurumenerako duen arriskuari buruz ere. Udalak bideak jarri beharko ditu herritarrek horri buruzko iritzia emateko kontsulta bidez. Ni, hasiera batean, ez nintzen herri kontsultaren aldekoa, baina, bildutako 1.250 sinaduren kontuari buelta emanez, ezkerreko indar batek ezin du beste norabait begiratu eta sinadura horiei uko egin. Horregatik, nik puntuz puntu bozkatzea proposatzen dut, eta nik lehenengoari ezetz eta bigarrenari baietz bozkatuko nuke.*

* Alkate jauna: Aitorrek egin duen erreferentziari dagokionez, guri botoa eman diguten eta Atez Atekoaren aurka sinatu duten pertsona kopuruarekin harrituko nintzatekeela, lehen ere entzun ditut "hurrengo hauteskundeak galduko dituzue" bezalako komentarioak. Gu ez gaude politikan hauteskundeak irabazteko, eta ez dugu egin behar jendeari gustatzen zaiona datozen hauteskundeetan bozkatu gaitzaten. Argi utzi nahiko nuke guk Eskoriatzarentzako onena dela uste duguna egingo dugula, eta horrekin botoak galdu behar baditugu, ona dela uste dudana egiten jarraituko dut, eta nire erantzukizuna da. Esan gura dut ere eztabaidatzen ari garen gaiak (osasuna, ingurumena...) pertsonen borondatezkotasunaren esku uztea, eta galdetzea gura duten edo ez... ez dakit nola deitu. Uste dut zaborren eta hondakinen gaiarekin tabernetan erretzearekin bezala gertatzen dela; uste dut legeak egin behar direla eta guztiok ardura hartu behar dugula, eta hondakinak bereiztu behar ditugula. Eta hondakinen bilketa gure eskumena da, eta gero, beste batzuei, arduradunei, eskatu edo exijitu beharko diegu hondakin horiei tratamendu egokia ematea.

Alkateak, bere txanda amaitzeko, bilkurara etorritako plataformako kide guztiak gonbidatu ditu ekarpenak egiten jarraitzera eta ingurmen arloko ardura duen zinegotziari heleraztera.

Jarraian, bilkurara etorritako herritar batek hartu du hitza, eta eztabaida gaia bere hitz egiteko txandaren arrazoiak bidetik joan da (ez dira transkribatzen esandakoak, ez direlako zinegotziek esandakoak eta ez dutelako ezer gehitzen orain arte esandakoari mozioaren gaiari buruz. Hala ere, jasota gelditzen da horiek grabatuta gelditzen direla mozioari erantsiko zaion bideoan).

* Ezpeleta jauna: zoriondu nahi dizuet egiten ari zareten ahaleginarengatik. Uste dugu egiten ari zaretena onerako dela, oxala guztiak izango balute birziklatzearen gainean zuek duzuen, eta baita guk ere dugun, motibazio eta kontzientziario maila. Nik bakarrik espero dut elkar sarriago ikustea gai honetaz hitz egiteko, eta ez komunikabideen bidez edo osoko bilkuran aritzea; soilik hitz egiteko, hobetzeko eta sistema guztiontzat onena izan dadin saiatzeko.

Hitz egiteko txandak amaitu ondoren, Alkaterak bototara jarri du puntu bakoitza. Bozketa eginda, emaitza honako hau izan da:

Lehenengo puntua ez da onartu: 5 boto aurka, 2 alde (Urrutia jauna eta Cantero jauna) eta 2 abstentzio (Madinabeitia jauna eta Iregui andrea).

Bigarren puntua ez da onartu: 4 boto aurka, 2 alde (Urrutia jauna eta Merino jauna) eta 3 abstentzio (Iregui andrea, Madinabeitia jauna eta Cantero jauna).

8.- PENTSIONEN MURRIZKETEI BURUZ EZKER ANITZAREN ESKARIZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

Pentsioen murrizketaren aurkako udal akordioa

PPren gobernuak gezurra esan du berriz haren benetako asmoei buruz, izan ere, 2012an behin eta berriz esan zuen pentsioen balioa handituko zuela, legea betez, eta azkenean alde bakarretik erabaki du pentsioen balioa ez handitzea. Gobernuaren erabaki horrek ia 9 milioi pertsoneri eragiten die. 2013rako iragarri zen 1000 eurotik beherako pentsioak % 2 igoko zirela, baina horrek ez du inolaz ere orekatzen 2012an pentsioen balioa ez igotzeak eragiten duen kaltea. Gainera, Gobernuak aukeratu duen formula konstituzioaren aurkakoa da, norbanakoen eskubide sendotuetan atzeraeragina duelako.

Gizarte sektore ahulenen aurkako beste eraso bat da hau; oraingoan, pentsiodunen aurkakoa; aurretik ere jasan izan dituzte honelako erasoak: PSOEn gobernuak 2011n pentsioak izoztu zituen, eta aurten beste doikuntza-neurri batzuk jasan dituzte (sendagaien koordainketa, mendekotasunaren arloko murrizketak...).

Eraso honen atzean, eta baita gainerako eraso guztien atzean ere, Europar Batasunak inposatutako zorrotasun-politika ikaragarriak daude, PPren gobernuak gogo handiz onartu dituenak. Langile publikoen soldatak murriztu dira, langile guztien soldata eta lan-eskubide guztiak, irakaskuntza eta osasun publikoa, langabezia-prestazioak, mendekotasuna dutenen arreta, berdintasuna, justizia, eta orain pentsioak. Hori guztia, ez dagoelako diru publikorik, baina diru horrekin bankuak erreskatatzen dira.

Udal ordezkariok neurri horiek eragindako herritarren alboan egon behar dugu, eta gizarte-estatuaren desegite hau geldiarazteko ekintza eta mobilizazio guztietan parte hartu behar dugu.

Hori dela eta, Ezker Anitza-IUren ordezkariak Udaltzari eskatzen dio akordio hau har dezan:

Lehena: eskoriatzako Udaltzak guztiz arbuiazen du Espainiako Gobernuak pentsioen balioa ez handitzeko hartu duen erabakia, eta Espainiako Gobernuari eskatzen dio pentsiodunen eroste-ahalmena lehengoratzeko; halaber, Gobernuari eskatzen dio pentsioen arloko erabaki guztiak adostuak izan daitezen, eta aurrez pertsona adinduen ordezkariekin hitz egin dadin administrazioen aurrean.

Bigarrena: Herritarrei akordio honen berri ematea, herriko komunikabideen bitartez, eta erabaki bidegabe honen aurka eta gizarte-estatuaren desegitearen aurka antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egitea.

Hirugarrena: Akordio honen berri ematea legebiltzar-taldeei eta Espainiako Gobernuari.

Iregui andreak proposatu du Eskoriatzako udal talde sozialistak gai berari buruz mozioa aurkeztu duenez, akordio batera iritsi eta testu bat adosteko mozio biak batuz.

Cantero jauna eta Merino jauna alde agertu dira eta erabaki dute osoko bilkura honetan bi udal taldeon artean egindako transakzioaren ondorengo mozioa Udaltzarraren esku uztea eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

Lehena: Eskoriatzako Udaltzak guztiz arbuiazen du Espainiako Gobernuak pentsioen balioa ez handitzeko hartu duen erabakia, eta Espainiako Gobernuari eskatzen dio pentsiodunen eroste-ahalmena lehengoratzeko; halaber, Gobernuari eskatzen dio pentsioen arloko erabaki guztiak adostuak izan daitezen, eta aurrez pertsona adinduen ordezkariekin hitz egin dadin administrazioen aurrean.

Bigarrena: Herritarrei akordio honen berri ematea, herriko komunikabideen bitartez, eta erabaki bidegabe honen aurka eta gizarte-estatuaren desegitearen aurka antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egitea.

Hirugarrena: Gizarte Segurantzako sistema sendotzeko eta bermatzeko neurriei buruzko azaroaren 30eko 28/2012 Errege Lege Dekretuaren aurkako konstituzio-kontrakotasun errekurtsua jartzeko eskatzen die Udaltzarrak Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979ko Lege Organikoaren 32. artikulua legitimatuei, bereziki, EAEko hiru hauteskunde-barrutietatik aukeratutako diputatu eta senatariei, eta herriaren defendatzaileari.

Laugarrena: Akordio honen berri ematea legebiltzar-taldeen eta Espainiako Gobernuari.

Bozketa eginda, adostutako mozioa onartu egin da Madinabeitia jauna abstenituta, eta bertaratutako gainerako udaltzarkideek alde bozkatuta.

9.- GIZARTE-BABESERAKO ZERBITZU PUBLIKOEN ALDE SOCIALISTAS VASCOS ESKORIATZAKO UDAL TALDEAREN MOZIOA.

Cantero jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

GIZARTE BABESERAKO ZERBITZU PUBLIKOEN DEFENTSAN ESKORIATZAK SOZIALISTAK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Justifikazioa:

Marea Laranja gizarte-zerbitzuetan aurrera eramaten ari diren murrizketen ondorioz sortutako ekimena da. Elkarrekin jardutea bilatzen du eta herritarrak eta politikoak kontzientziatu nahi ditu gizarte-zerbitzuen sistema babestearen inguruan; izan ere, murrizketekin dagoeneko iraungita zegoen benefizentzia sistemara eraman gaitzakete berriro ere.

Estatu batek ia 5,7 milioi langabetu dituenean, milaka familia egunero etxetik bota ditzaten mehatxu pean bizi direnean, eta 11 milioi pertsona baino gehiago, jasaten dituzten baldintzak direla-eta, pobrezia atarian bizi direnean, gizarte-zerbitzu publikoak gizarte-bazterkeriaren amildegira erortzea eragotzi behar duen sarea dira.

Unión Democrática de Pensionistas-ek enkargatutako inkesta baten arabera, adineko pertsonen %40 inguruk diruz laguntzen diote senitartekoren bati, beren erretiroaren lasaitasunaren kontura.

Egoera horren aurrean, gizarte-zerbitzuak urgentziaz indartu behar dira, baina, tamalez, oraindik Luis de Guindos Ekonomia ministroaren hitzen oihartzuna entzuten da, esanez gizarte-zerbitzuak ordaintzeko dirua agortzen ari dela.

Egunetik egunera aberats eta pobreen arteko arrakala gero eta handiagoa da, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen sarea desmuntatzen ari dela ikusten ari gara, Mendekotasunaren Legea isilpean bertan behera geldituta. Horrek, gainera, ondorio larriak dakartza emakumeentzat, haiek direlako gehienbat sektore horretan lanean ari direnak, baita senitartekoen ardurua hartu beharko dutenak ere, horiek babestuko dituen eskubiderik ez baldin badago.

Hori guztia kontuan izanda, udal talde sozialistak ondorengo mozioa aurkezten du udalbatzarrean aztertzeko:

Lehenengoa: Eskoriatzako Udalak bat egiten du babes sozialeko zerbitzu publikoen aldeko aldarrikapenarekin, horiek kohesio eta justizia sozialerako eta aukerak eta aberastasuna banatzeko tresna direlako, eta gizarte prestazioetan inbertitzeko premia larria dagoela adierazten du.

Bozketa eginda, Madinabeitia jauna abstenituta, eta bertaratutako gainerako udalbatza-rikideek alde bozkatuta, mozioa onartu da.

10.- PENTSIOAK EGUNERATZEAREN ETA ERREBALORIZATZEAREN ALDE SOCIALISTAS VASCOS ESKORIATZAKO UDAL TALDEAREN MOZIOA.

Aurkeztutako mozioa jarraian transkribatzen baldin badugu ere, mozio hori ez da berez eztabaidatuko eta bozkatuko, izan ere, gai berari buruz Ezker Anitza-IU-k aurkeztutako mozioa jorratzerakoan bi mozioak batzetik ateratako testua adostu baita.

MOCION DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DE ESKORIATZA EN DEFENSA DE LA ACTUALIZACION Y REVALORIZACION DE LAS PENSIONES.

JUSTIFICACION

El pasado 30 de noviembre conocimos que el dato de inflación se situó en un 2,9%. Con este dato se suben normalmente las pensiones, para que los pensionistas no pierdan poder adquisitivo. Pero este año no será así debido a la decisión del Gobierno central de no revalorizar las pensiones conforme a la desviación de precios de 2012.

Por un lado el Gobierno suspende el abono de la paga compensatoria, que es la paga que se cobra normalmente a finales de enero, por la que de una única vez se abona a los pensionistas la

diferencia entre lo que subieron sus pensiones a comienzos de año (en este caso, el 1%) y lo que han subido los precios (el 2,9%). Y, así mismo, el Gobierno sube las pensiones en 2013, pero menos de lo que suben los precios –las pensiones de menos de 1.000 euros al mes subirán un 2%, y el resto un 1%, lejos, en cualquier caso, de la subida del coste de la vida: 2,9%.

Esta decisión del Gobierno de Mariano Rajoy implica que todos los pensionistas, entre ellos los vascos, van a ver reducida de forma intolerable su capacidad de renta y, por consiguiente, su calidad de vida.

A nuestro juicio, esta medida, tomada con un especial secretismo con la clara intención de ocultar al electorado que no se iban a actualizar las pensiones, unida a la subida del IVA y otros impuestos, se plantea como una agresión sin precedentes a las personas mayores y pensionistas, que requiere de una respuesta por parte de este Parlamento.

Existen importantes dudas jurídicas sobre la constitucionalidad de esa decisión, en tanto que el artículo 9.3 de la Constitución garantiza "la irretroactividad de las disposiciones sancionadoras no favorables o restrictivas de derechos individuales" y quitar a los pensionistas esta paga compensatoria es despojarles de un derecho que han ido consolidando mes a mes durante todo el año 2012 y supone vulnerar lo dispuesto en los Presupuestos Generales del Estado para 2012 que garantizaban la percepción de la misma.

Es por ello, que el Grupo Municipal Socialista de este Ayuntamiento presenta para su aprobación la siguiente **Moción**:

1.- El Ayuntamiento Pleno rechaza la decisión del Gobierno de España de no revalorizar las pensiones conforme a la desviación de precios de 2012, así como la suspensión del abono de la paga compensatoria, sin tener en cuenta la especial vulnerabilidad de las personas afectadas por este nuevo recorte del Gobierno de España.

2.- El Ayuntamiento Pleno insta a los legitimados en virtud del artículo 32 de la Ley Orgánica 2/1979, de 3 de octubre, del Tribunal Constitucional y especialmente a los diputados y senadores elegidos por las tres circunscripciones de la CAPV, y a la Defensora del Pueblo a ejercer el recurso de inconstitucionalidad frente al Real Decreto Ley 28/2012, de 30 de noviembre de medidas de consolidación y garantía del sistema de la Seguridad Social.

11.- GALDE-ESKEAK.

- Urrutia jaunak ondorengo galderak egin ditu:

1.- Santa Anako etxabeko lokala.

Esaten du jakin duela Santa Anako lokala tasatzen ari direla ustez saltzeko asmoarekin. Gaia nola dagoen galdetu du.

Alkateak erantzun dio planteatzen ari diren aukera dela, baina, Ogasuneko otsaileko baztordean zehaztasun gehiagorekin emango dela horren berri.

Urrutia jaunak zein den arrazoia galdetu dio

Alkateak erantzun dio batetik herritar batzuk lokalarekiko interesa azaldu dutela bertan jarduera bat egiteko eta, bestetik, kultura arloak udalak dituen lokal beharrak aztertu dituela.

Urrutia jaunak galdetu du ea ez dagoen beste aukerarik, adibidez, alokairua.

Alkateak erantzun dio oztopo batzuk ikusten dituela, baina, ez dutela aukera hori ere bazterten.

Urrutia jaunak zalantzan jarri du oztopoak ikustea alokairuan eta ez salmentan.

2.- Zarimutzeko abade etxeari erantsitako lokaleko obrak.

Urrutia jaunak, Zarimutzeko abade etxeari erantsitako lokalean obrak egiten ari direla jakin duela adierazi ondoren, horiei buruz galdetu du.

Madinabeitia jaunak erantzun dio Hirigintza batzordean eman zela horren berri, eta ez duela arazorik gaiari buruz informazioa emateko hurrengo Hirigintza batzordean.

3.- Kirol aholkulari-teknikariaren kontratazioa

Kirol aholkulari moduan Rosa Lasagabaster kontratatu dela jakin duela adierazi ondoren, eta horrela batzuek apostua irabazi dutela esan, gaia nola dagoen galdetu du.

Alkateak jakinarazi dio laster egingo den ez ohiko bilkura batean aztertuko dela, eta bertara Kontratazio Mahaiaren proposamena eramango dela, eta aurkeztutako eskaintzak baloratzeko bi kirol teknikari izan direla bertako aholkulari.

- Merino jaunak enplegu teknikari bat kontratatzeke aukera planteatu du Eskoriaztan dagoen langabetu kopuruari erantzuteko.

Alkate jaunak Pertsonal batzordean egin zuen organigrama proposamenari ekarpenak egitera gonbidatu du, oraindik erabakitzeke baitago.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 21:50ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- INFORMACIÓN SOBRE EXPEDIENTES DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS

El alcalde da cuenta de las resoluciones aprobatorias de los expedientes de modificaciones de créditos nº 1 y nº 2

A continuación se transcribe el ESTADILLO PRESUPUESTARIO DE LOS CONCEPTOS DE INGRESOS Y PARTIDAS DE GASTOS QUE CONFORMAN cada uno de los expedientes.

- EXPEDIENTE Nº 1

PROPUESTA DE GASTO Y DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS

PARTI

PROPUESTA DE FINANCIACIÓN DE CRÉDITOS ADICIONALES

Concepto de ingresos o partida de gastos	Concepto de los recursos (11)	Nuevos ingresos	Parcial de los recursos
2.0201.823.000.00.01	NUEVOS INGRESOS: Devolución de anticipos a corto plazo: anticipos de personal.	62.723,41 €	
<i>TOTAL DE INCREMENTO DE GASTOS</i>		62.723,41 €	

- EXPEDIENTE Nº 2

Partidas de gasto: créditos que se quieren transferir (bajas)

Partida	Denominación	Crédito inicial	Reducción	Crédito final
0405.212.452.20.01	Mantenimiento:máquinas del polideportivo.	21.987,45	5.800,00	16.187,45
TOTAL ...		21.987,45	5.800,00	16.187,45

Partidas de gasto: créditos que se quieren incorporar (altas)

Partida (*)	Denominación	Crédito inicial	Incremento	Crédito final
0405.625.452.20.99	Otros instrumentos: polideportivo	0,00	5.800,00	5.800,00
TOTAL ...		0,00	5.800,00	5.800,00

* Se podrán crear nuevas partidas presupuestarias.

2. APROBACIÓN DEL PRESUPUESTO CONSOLIDADO 2013

Con fecha 22 de enero de 2013 la Comisión Informativa de Hacienda dictaminó favorablemente el Proyecto de Presupuestos elaborado por la Alcaldía.

El Alcalde explica los criterios tenidos en cuenta a la hora de elaborar la propuesta, así como las previsiones que por capítulos contiene la misma. Así dice:

Teniendo en cuenta la situación en la que vivimos, son unos presupuestos muy adecuados para Eskoriatza. Se ha hecho mucho trabajo elaborándolos y reflejo de ello es la buena valoración que de ellos se hace desde el equipo de gobierno. Creo que es en los últimos años el presupuesto más equitativo, más social y que mejor responde a los problemas el pueblo. Vistos estos presupuestos creo que va a ser un año lleno de retos, departamento por departamento se han fijado objetivos y actividades, y consecuencia de ello ha sido este presupuesto. Por mencionar lo más importante, tenemos la última fase de recuperación del castillo de Aitxorrotx, la finalización y puesta en marcha por proyecto del teatro, se fomentará el empleo y comercio local, se consolidará el servicio deportivo, se profundizará la propuesta para modificar el sistema de recogida de residuos sólidos urbanos, se seguirá en la mejora de servicios... Y estamos dispuestos a desarrollar más proyectos, pero la legislación que regula el desarrollo de los presupuestos y los números no nos han dado opción a que entren en estos presupuestos. A modo de ejemplo, las inversiones de anteiglesias, las inversiones para la mejora de la movilidad en el municipio (asfaltado de la calle central, cambio de parada de autobús...) Por ello, si bien en el presupuesto cuya aprobación hoy proponemos no se recogen, eso no quiere decir que no se hagan, os garantizo que en los próximos meses serán incorporados al presupuesto. Vendrá la propuesta, y si hace falta, pasarán por el pleno. Pero todo no es tan positivo. La subida que ha tenido el IVA y el IPC han incidido directamente en la gestión económico-financiera del este ayuntamiento, encareciendo muchos costos. Por otro lado, las imposiciones que nos vienen de Madrid han dificultado mucho la configuración de este presupuesto, pero como se

